

Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko **GIDA METODOLOGIKOA**

Olatz Altuna

Asier Basurto



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>



Argitaraldia: 1.a, 2013ko urtarrila

Ale-kopurua: 850 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

© Soziolinguistika Klusterra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak: Olatz Altuna eta Asier Basurto

Laguntzaileak: Network to promote Linguistic diversity

Osaketa grafikoa: Zirrimarra (Andoain)

Inprimaketa: Ulzama Gráficas, S.L.

ISBN: 978-84-457-3287-8

Lege Gordailua: VI-55-2013



Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko **GIDA METODOLOGIKOA**

Olatz Altuna
Asier Basurto



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2013

Aurkibidea

AURKEZPENA:

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea 7

AURKEZPENA:

Jannewietske de Vries, NPLDko burua 9

ESKER ONAK: Olatz Altuna, Asier Basurto, *Soziolinguistika Klusterra* 13

HITZAURREA: Jacqueline Urla, Massachusettseko Unibertsitatea 15

SARRERA 21

1.	AHOZKO ERABILERAREN BEHAKETA	27
1.1.	Aztergaia: ahozko erabilera	28
1.2.	Metodologiaren oinarria: behaketa	28
1.3.	Metodologiaren ezaugarri nagusiak	32
1.3.1.	Diskreziua	32
1.3.2.	Behaketa-unitatea, elkarrizketa	33
1.3.3.	Elkarrizketen iraupena ez da kontuan hartzen	33
1.3.4.	Elkarrizketak hizkuntza bakarrean	34
1.3.5.	Neurketa bakoitzak bere diseinu propioa du	34
2.	KALE-ERABILERAREN NEURKETA EGITEKO GIDA	39
2.1.	Diseinua	41
2.1.1.	Aldagaiak	41
2.1.2.	Lekua: guneak eta ibilbideak	44
2.1.3.	Denbora: ordutegiak eta neurketaren iraupena	47

2.1.4.	Neurtu beharreko elkarrizketa kopurua: lagina eta fidagarritasun maila	49
2.1.5.	Erabileraren bilakaera: edizioz edizioko jarraitutasuna	54
2.2.	Landa-lana	55
2.2.1.	Fitxa-orriak	55
2.2.2.	Telefono mugikorra	60
2.2.3.	Datu-bilketarako irizpideak	62
2.3.	Datuen tratamendua	70
2.4.	Emaitzen irakurketa	74
3.	HIZKUNTZA-ERABILERAREN BEHAKETA EUSKAL HERRIAN	81
3.1.	Euskal Herria, euskararen herria	81
3.2.	Ikerketaren kokapena eta ibilbidea	84
3.3.	Ikerketaren ondorio nagusiak	86
4.	HIZKUNTZA-ERABILERAREN BEHAKETAK LANTOKIETAN ETA IKASTETXEETAN	99
	ERREFERENTZIAK.....	107

AURKEZPENA



Patxi Baztarrika
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Hizkuntzen egoera eta garapen-maila neurtzeko hainbat tresna ditugu eskura, zein bere ezaugarriekin; horregatik, neurri handi batean batzuk besteen osagarri dira. Errolda eta zentsuetan hizkuntzen jakintzaren berri jaso ohi da, usu axaletik bada ere. Aldian-aldean inkesta soziolinguistikoek hizkuntza-gaitasunaren, belaunetz belau-neko transmisioaren, erabileraren eta hizkuntzaren sustapenarekiko jarreraren inguruko informazio eguneratua ematen digute, esparru horietan gertatu diren bilakaerak ezagutzeko ere baliagarria izaten dena. Euskal Herriaren kasuan, bost urtez behin egiten dugu euskararen lurralde guztietako inkesta soziolinguistikoa, horretarako biztanleriaren lagin adierazgarri bat erabiliz. Azkenik, hizkuntzaren ahozko erabilerari zuzenean erreparatzeko metodoak dauzkagu, eta lerro hauen bidez aurkeztu nahi dudana behaketa-metodologia horretan dago hain zuzen ere oinarrituta.

Azken hogeitun urteotan behaketa bidezko erabileraren neurketak sendotuz eta finduz joan dira, hala teoriaren nola praktikaren aldetik. Oinarri matematiko eta estatistikoak finkatu dira, behatutakoaren adierazgarritasuna bermatzeko, besteak beste. Eta metatu den esperientziak, beste metodoekin gertatu den bezala, eragiketaren zenbait alderdi hobetzeko balio izan du. Erabileraren zuzeneko behaketak

apenas du tradizioarik Europako zein mundu zabaleko beste eremu urriko hizkuntzen analisisian. Horregatik uste dut komeni dela euskararen egoera aztertzeko erabili den metodologia ezagutaraztea gure mugetatik landa, izan ere beste hiztun-komunitate batzuetan jakin-min handiz jarraitu da gurean egindakoa. Inkesta soziolinguistikoak diseinatu eta gauzatzeko prozesuetan bezala, bada hemen ere zer partekatu, guztion onerako.

Lan honek helburu praktikoak ditu, batez ere. Ahozko erabilera nola behatu eta neurtu daitekeen erakusten du, metodologiaren osagai esanguratsuenak azalduz. Adibideen bitartez, behaketa-prozesuaren fase guztiak zehazten ditu, halako azterketa mota bati heldu nahi dion edonoren lagungarri. Izan ere, lan metodologikoa den aldetik, eskuliburu honen azken xedea behaketa bidezko analisiak egiterakoan kontuan eduki beharrekoak argi erakustea da, eta xede horrek gidatu du, ongi gidatu ere, Soziolinguistika Klusterreko Olatz Altuna eta Asier Basurto egile eta koordinatzaileen lan bikaina.

Ziur nago behaketaren metodoak azaldu eta aplikagarri egiten dituen eskuliburu hau guztiz erabilgarritzat joko dutela beste lurralde batzuetan, Galestik Finlandiara edo Irlandatik Galiziara, esaterako. Hizkuntza politika eraginkor batek nahitaez oinarritu behar du egoera soziolinguistikoaren analisi eta neurketa sendoetan, edozein neurriren aurretik baitago egoeraren ezagutza ahalik zehatzena. Horretan elkarren osagarri diren ikerketa motek asko lagundu dezakete, maiz antzematen zaila den errealitate linguistikoaren interpretazioak alderdi ugari kontuan izatea eskatzen baitu. Eta hori, jakina, edozein esku-hartzeren aurretik egin beharreko gogoeta da. Datuak, eta datuok eskuratzeko metodoak, beti izango dira ezinbestekoak zeregin horretan.

AURKEZPENA



Jannewietske de Vries
NPLDko burua

Hizkuntza da komunitate bat definitzen duen ezaugarri nagusietako bat. Hizkuntza bakoitzak munduaren ikuspegi jakin bat helarazten du, bai eta imajinario kolektibo bat ere, gizakioi bide ematen diguna gure inguruko gauza guztiak izendatzeko, antolatzeko eta sailkatzeko. Hizkuntzak, halaber, tresnak dira: gizabanakoek eta taldeek erabiltzen dituzte bizipenak komunikatzeko eta partekatzeko.

Hizkuntza baten bizitasuna bermatzeko modurik onena da bizitzako arlo guztietan erabiltzea eta etorkizuneko belaunaldiei ematea. Hizkuntzak gai dira gizarte-eskakizun berrietara egokitzeko, berrikuntzaren bidez edo beste hizkuntza batzuekiko kontaktuari esker aberastuz. Hizkuntza guztiak dira irekiak, malguak, dinamikoak eta osagabeak, eta hizkuntza guztiak aberasten dira, etengabe aberasten ere, beste hizkuntza batzuen bitartez.

Guide to Language Observation (Hizkuntza behatzeko gida) oso tresna baliagarria da hizkuntzaren osasuna aztertzeko, hots, hizkuntza eguneroko jardunean nola erabiltzen den aztertzeko, eta komunitate ororen esku dago. Batzuetan, gobernuak hizkuntza-politikak eta estrategiak bultzatzen, babesten eta sortzen dituzte, beren hizkuntzak sustatzeko. Edonola ere, hizkuntzaren erabilera da barometro onena politika horien arrakasta eta hizkuntzaren bi-

zitasuna neurtzeko; zehazki, hizkuntzaren erabilera praktikoa eta berezkoa. Ezinbestekoa da hizkuntza jakin batek zenbat hiztun dituen jakitea, gobernuek eta hizkuntza-planifikatzaileek neurriak har ditzaten hiztunen kopurua handitzeko eta erabilera-eremua zabaltzeko.

Hizkuntza bat hiztunik gabe gelditzen bada, belaunaldi arteko kultura-integrazioa eta komunitatearen gizarte-kohesioa eten egiten dira, bortizki eten ere. Horren harira, badira mekanismo batzuk hizkuntza baten ahozko erabilerearen bizitasuna aztertzeko. Mekanismo horiek behar-beharrezkoak dira, hizkuntza guztien osasuna bermatzeko, bai eta komunikabide bizi izaten jarraituko dutela bermatzeko ere.

Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD: Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea) delakoak bi helburu hauek ditu: bate-tik, konstituzio, eskualde eta estatu txiki-tako hizkuntzek Europan lekua izatea; eta, bestetik, jendeari kontzientzia harraraztea Europa-ko hizkuntza oro bultzatu behar dugula, hiztun-kopurua edo egoera politikoa edozein dela ere. Erabat ziur nago azterlan hau onuragarria izango dela NPLDren kide diren hizkuntza-komunitate guztientzat. NPLDk horrelako ekimenen alde egiten jarraituko du; izan ere, zinez onuragarriak dira Europa osoko politikarientzat, politikak egiten dituztenentzat, profesionalentzat eta ikerlarientzat.

ESKER ONAK



Olatz Altuna (*Soziolinguistika Klusterreko teknikaria.*
Euskal Herriko Kale Neurketaren zuzendaria)
Asier Basurto (*Soziolinguistika Klusterreko teknikaria*)

Lan honen barrenean sartu aurretik, hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia sortu, garatu eta praktikara eraman duten lagunak eta erakundeak aipatu nahi ditugu, haiei esker iritsi gara-eta lan hau egitera. Izan ere, herri-ikuskera lehenetsi duten hainbat borondateari eta elkarlanari zor zaie hemen aurkezten den metodologia garatu izana eta hogeita bost urteko ibilbidean aurrera egitea.

Siadeco ikerketa-guneko kide zelarrik, Iñaki Larrañaga izan zen metodologiaren sortzailea 80ko hamarkadan. Garai hartan, Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) jarri zuen abian, Euskal Herri mailan, hizkuntza-erabileraren behaketa, gerora *Kale Neurketa* izenez eza-gunagoa egin dena.

Geroztik, metodologiaren sendotze-bidean hainbat lagunen ekarpenak jaso dira. Aipamen berezia egin nahi diegu Jose Jabier Iñigori, Kike Amonarrizi, Imanol Esnaolari, Leonel Jolyri eta oraindik Batzorde Zientifikoko kide diren Iñaki Martinez de Lunari, Xabier Isasiri, Rosa Ramosi eta Iñaki Iurrebasori.

Bereziki goraiatu nahi dugu Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi adiskidea, berriki zendua. Metodologia hau oinarri hartuta sortu zuen erabilera isotropikoaren eredu matematikoa (Txillardegi, 1994; 2001), zinez ekarpen aberatsa dena.

2006tik hona estatistikari buruzko aholkulari lanetan aritu zaizkigu Yosu Yurramendi eta Eñaut Urrestaratzu. Hauei zor diegu laginak eta akats-tarteak kalkulatzeko eredu estatistikoa. Hasieratik jasotako datuak modu egituratuan eta kontsultagarrian antolatu ditu Nestor Urreztaratzuk.

Erabileraren behaketa lantegietara eta gune mugatuetara egokitze ezinbesteko laguntza eman digute EMUN kooperatibak eta ELHUYAR aholkularitzak.

Soziolinguintika Klusterrarentzat proiektu estrategikoa da honako hau. Lankide guztiek hartu dute parte modu batera edo bestera. Bulegoko kideak, Belen Uranga, Denis Elortza, Ibon Usarralde, Iker Salaberria, Isabel Godinez, Larraitz Garmendia, Oihana Lujanbio eta Pablo Suberbiola, mila esker zuen laguntzagatik.

Ezin eskertu gabe utzi, bestalde, ikerketa eta argitalpen hau diruz lagundu duten erakundeak: *Network to Promote Linguistic Diversity* –NPLD–, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak eta hainbat udal.

1989az geroztik egin diren sei edizioetan ezinbesteko protagonista izan direlako, eskerrik asko datuak biltzen aritu diren ehunka neurtzaileei. Nola ez eskertu hastapen haietan musu-truk aritu ziren boluntario haien ardura eta konpromisoa! Lan altruista hartatik ernaldu zen geroko lan sistematizatuagoa eta, zilegi bada esatea, “profesionalagoa”. Molde batean edo bestean jardun, neurtzaileen parte-hartzerik gabe ez ginateke honaino iritsiko, eta, batez ere, ez genuke euskararen egoerari buruz hain informazio baliagarria eta aberatsa izango.

HITZAURREA



Jacqueline Urla,
Massachusettsseko Unibertsitatea

Duela ia 30 urte ikusi nuen lehen aldiz liburu honetan aztergai izango dugun euskararen erabilerari buruzko kale-neurketaren edo -ikerketaren hasierako prototipo bat. 1983ko udan izan zen, Usurbilgo Santa Ixabel jaietan (Gipuzkoa). Itxaropen eta zirrara handiko urtea zen euskararen suspertzeari zegokionez: Euskararen Legea (1982) onartu berria zen, eta euskara hizkuntza koofizial izendatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan, gaztelaniarekin batera. Usurbilgo gazteek, jaiak antolatzean, hizkuntzaz kontzientziazteko kanpaina bat erantsi nahi izan zuten ospakizunetan. Euskara esparru berrietara zabaltzen ari zen, eta instituzioen babesa lortzen, Francoren diktaduraren ondoren, baina benetan zenbat erabiltzen zen euskara eguneroko bizitzan? Garai hartan, ikerketa etnografikoak egiten ari nintzen Usurbilen, eta ikusi nuen bertako euskaltzaleak datuak jasotzen ari zirela, SIADECO euskal ikerketa-erakunde independentearen laguntza teknikoarekin, ikusteko zenbat erabiltzen zen euskara eta zenbat gaztelania eremu publikoetako elkarriketetan. Herri txiki horretako kale nagusietako elkarriketetan zer hizkuntza erabiltzen zen entzuteko eta jasotzeko metodoa erabili zuten behatzaileek. Behin datuak eskuratuta, euskararen erabileraren emaitza txarrak herriko plazan jarri zituzten jaiek iraun bitartean, denek ikus

zitzaten. Estatistikez gain, eskolako hurrek margotutako horma-irudi zoragarri bat zintzilikatu zuten, jaietan euskara erabiltzera dei egiten zuena.

Oker ez banago, kale-neurketa bihurtuko zenaren lehenengo saioa izan zen, edo lehenengoetako bat. Hizkuntza-erabileraren neurketa estatistikoak baliatzeko modu herriko horrek bultzatuta, erabaki nuen sakonago aztertzea zer eginkizun zuten estatistikek Euskal Herriko nahiz handik kanpoko egungo gizarte-errealitateak definitzeko eta eztabaidatzeko nonahiko tresna eraginkor gisa (Urla, 1993; 2012). XX. mendearen hasierara atzera eginda, ikusi nuen euskaldunek aspaldidanik erabiltzen zituztela neurketa estatistikoak, beren gizarte-errealitatea modu objektiboagoan ulertzeko, bai hizkuntzaren aldetik, bai osasun publikoaren aldetik, bai ekonomia-aren aldetik (Urla, 1989). Gaur egun zentzuz gobernatzeko beharrezko baliabidetzat hartu zituzten estatistikak hasiera-hasieratik. Euskararen defentsaren alorrean, etengabe egin izan dira neurketak; izan ere, euskaldunen itzaropena zen zentzuzko irizpideen arabera egindako neurketa kuantitatiboek hautsi egingo zutela euskaltzale askoren ustez egoera linguistikoa behar bezala neurtzea zailten zuten uste eta ideologia politikoaren lotura (ikusitako SIADECO, 1979). Egia esan, Europan dauden hizkuntza gutxitu ugarien artetik, demolin- guistikaren duen tradizio sendoa eta etengabeagatik gailentzen da euskararen defentsa.

Kale-neurketa tradizio horren zati da. Baina, era berean, aparteko bide bat irekitzen du, hizkuntzaren erabilerari zuzenean behatzea hartzen baitu ardatz, alde batera utzita hiztunek beraiek betetzeko txostenen ohiko metodoa. SIADECOKo kide Iñaki Larrañagak 1983an esan zidanez, kale-neurketaren helburua zen euskarak eremu publikoetan zuen erabileraren argazki bat ateratzea. Zergatik neurtu erabilera? Zergatik da horren garrantzitsua eta zergatik neurtu behar da behaketaren bidez? Zertarako balio du horrek?

Hizkuntza gutxituez ari garenean, adituek badakite hiztun kopurua engainagarria izan daitekeela askotan. Gehiengoaren hizkuntzara egokitze beharra ezartzen duten estigmatizazioen, debekuen

eta hizkuntza-ideologien ondorioz, gutxiengoaren hizkuntzaren erabilera publikoa oso mugatua izaten da askotan (Woolard, 1989). Hori dela eta, litekeena da hizkuntza gutxitu bateko gaitasunen neurketa oso adierazle ahula izatea hizkuntzak komunikazio-bide gisa duen indarra neurtzeko. Era berean, badakigu ingurune sozial eta politikoak baldintzatu egiten dituela hiztunak, hizkuntzari buruz dituzten ezagutzak adierazteko orduan, bai eta erabilera kalkulatzeko orduan ere (Bourhis eta Sachdev, 1984). Egia da era guztietako portaerekin gertatzen dela hori, baina hizkuntza gutxituen erabilera adieraztean distortsioa handiagoa izan daiteke, nik eskala desbideratuaren fenomeno deritzodanaren ondorioz. Era guztietako gutxiengoen presentziari buruz ematen diren iritzietan ikus daiteke fenomeno hori –emakumeak, sexu- eta arraza-gutxiengoak, edota hizkuntza gutxituetako hiztunak–. Ereku publiko batean, ikuspuntu objektibo batetik begiratuta, gutxiengoen ehuneko txiki bat dagoenean, askotan ehuneko hori benetan zena baino handiagoa gogoratzen da gero. 20 gizonezko zuriz osatutako talde batean bizpahiru beltz, emakume edo gay baldin badaude, talde integratua zela gogoratuko dute gero. Hizkuntzari dagokionez ere, hitz enblematiko bat edo noizean behin esaldi bat erabiltzea nahikoa izan daiteke gehiengoaren hizkuntzako hiztun batek interakzioa edo ekitaldia gutxiengoaren hizkuntzan gertatu dela gogoratzeko (Hill, 2008).

Behaketa-metodoek, akatsak izan ditzaketen arren, hutsune hori betetzeko aukera ematen dute. Ereku publikoetako hizkuntza idatziari buruzko informazioa ematen duten paisaia linguistikoen neurketekin gertatzen den moduan (Landry eta Bourhis, 1997), ahozko hizkuntza ere behaketetan oinarrituta neurtzeak hiztunen pertzepziotik aske dauden datuak ematen dizkigu. Neurketa horri esker, informazio ugari lor dezakegu, datuen abiapuntu bat eduki dezakegu denborak aurrera egin ahala datuak alderatu ahal izateko, eta hiztunek betetako txostenekin alderatzeko eta haien osagarritzat erabiltzeko moduko datuak izan ditzakegu eskura. Hizkuntza-antropologian, eta batez ere komunikazioaren etnografian, behaketaren bidez eskuratutako datu ugari erabiltzen dira, uste delako hiztunek

konturatu gabe dauzkaten joera eta portaera asko eman ditzakete-la ezagutzera. Adibidez, hiztunek askotan ez dituzte entzuten zenbait hizketa-doinu, ez dituzte nabaritzen kode-aldaketak eta ez dute behar bezala neurtzen zenbatetan kentzen dieten hitza besteei. Dialekto-aldaketei buruzko ikerketek erakutsi dutenez, behaketaren bidez lortutako datuak lagungarriak izan daitezke gertatzen ari diren gizarte-aldaketak identifikatzeko, gizarte-eragileek eta ikertzaileek aldaketa horiek hauteman baino lehen.

Beraz, arrazoi sendo ugari genituen hizkuntza-erabilerari buruzko informazioa bildu nahi izateko, eta informazio hori behaketaren bidez biltzeko. Nolanahi ere, ez geneukan horretarako modu egokirik. Eta hor sortzen da alor honetan aitzindaria den kale-neurketaren beharra. Hizkuntzak eremu publikoetan duen erabilerari buruzko datu kuantitatiboak jasotzeko modu bat da kale-neurketa. Oso garrantzitsua da azpimarratzea eremu publikoetako erabilera aztertzen duela. Argi dago ikuspegi horrek zerikusia duela, neurri batean, faktore pragmatikoeekin: azken finean, ikertzaileentzat errazagoa da eremu publikoetara iristea. Baina hizkuntzak eremu publikoetan duen erabilera aztertzeko ikuspegiak zerikusia du, halaber, hizkuntza suspertzeko mugimenduak aspaldidanik duen helburu batekin: euskara hizkuntza publiko bihurtzarekin erabilera orokorrerako hizkuntza bat, talde etniko batera edo gizarteko arlo jakin batzuetara soilik mugatzen ez dena (Woolard, 2008; Gal eta Woolard, 2001). Euskararen eta katalanaren inguruko mugimenduen kasuan, hizkuntza horiek hizkuntza publiko bihurtzea izan da, neurri handi batean, hizkuntzaren normalizazioaren esanahia. Bi hamarkadatik gorako tarte honetan aldian-aldian egin izan diren kale-neurketei esker, zenbait argazki ditugu, eta alderatu egin ditzakegu. Alde horretatik, euskara sustatzeko politikak eta hezkuntza-politikak euskara hizkuntza publiko bihurtzeko helburu jakin horretan zer eraginkortasun izaten ari diren ikusteko barometro gisa erabil ditzakegu argazkiak.

Tresna berritzaile hau (kale-neurketa) da, nik dakidala, era horretako tresna bakarra. Euskaltzale eta ikertzaile boluntarioek sortu zuten, hizkuntza-gaitasunaren, hizkuntzaren defentsaren eta beneta-

ko hizkuntza-erabileraren arteko aldeari buruzko informazioa eskuratzeko. Egiteko izugarria da, eta zazpi euskal probintzietara zabalzen da. Kale-neurketa sortu eta etengabe hobetu izanak argi uzten du zer indar duen eta zer berrikuntza dakarren hizkuntzaren defentsak Euskal Herrian gobernutik kanpo. Tresna horren historiak erakusten digu, halaber, aurrerapauso positiboak egin direla hizkuntzaren defentsan. Hasierako urteetan, euskarari buruzko politika ofizialak ez zuen kontuan hartu kale-neurketa, zalantzan jarri zuen haren baliokotasun zientifikoa, eta ez zituen ia inoiz edo inoiz onartu neurketaren emaitzak gobernuak hizkuntzaren egoerari buruz egindako txostenetan. Pozik esan dezaket hori dagoeneko ez dela gertatzen, eta, oro har, gobernuko eta gobernuz kanpoko hizkuntza-ikertzaileek harreman hobea dutela eta lankidetzan aritzeko prest daudela. Aniztasun hori eta elkarrekiko errespetu hori seinale onak dira euskal soziolinguistikaren eta hizkuntza-politikaren etorkizunerako.

Liburu honen bidez, euskaldunek beste hizkuntza-komunitate batzuetara zabalduko dute lankidetzarako espiritu hori, eta ezagutzera emango dute kale-neurketaren metodologia, beste testuinguru batzuetan probatu eta erabil dadin. Ziur nago hizkuntzaren alde lanean ari diren beste talde batzuei ere lagungarri izango zaiela. Nolanahi ere, beharrezkoa da metodologia honen mugak ere kontuan izatea. Lehenik eta behin, eskala zabalean datu kuantitatiboak lortzeko balio du neurketa honek. Bere diseinuagatik, ezin ditu hauteman hizketaren ezaugarri txikiak, hala nola kode-aldaketa eta elkarrizketetan sarri gertatzen diren beste hizkuntza-alternantzia batzuk, batez ere gutxiengoaren hizkuntzaren testuinguruetan edo zenbait hizkuntza dauden testuinguruetan gertatzen direnak. Hizketa-jardunaren konplexutasuna murriztu egiten du ezinbestean. Argazkia lagungarria da, baina ez du istorio osoa kontatzen. Hizkuntza-erabileraren joerak ulertzeko, beharrezkoa izango da datu horiek hizkuntza-erabilerari buruzko behaketa bidezko beste ikerketa zehatzago batzuekin osatzea komunikazioaren etnografiaren barruan, baldin eta hizkuntza-aukeraketaren eta interakzio linguistikaren dinamikak ulertu nahi badira.

Bigarrenik, neurketak ematen dizkigun ehunekoek ez dute beren kabuz ezer azaltzen. Denborak aurrera egin ahala hizkuntza-
ren erabilerak eremu publikoetan zer bilakaera duen ikusteko balio
digu. Baliteke arrastoak ematea hizkuntza eremu publikoetan era-
biltzearekin lotura handiagoa edo txikiagoa duten testuinguruei eta
gizarte-taldeei buruz. Adibidez, ikusi ahal izan da haurrak egotea
euskara erabiltzearekin lotura zuzena duen faktore bat dela. Baina,
emaitzak azaltzeko, beharrezkoa da, berriro ere, datu horiek beste
ikerketak sakon batzuekin osatzea, eta aztertzea zein diren dagozkien
hizkuntzekin lotutako balio sinbolikoak, hizkuntza-aukeraketa era-
giten duten arauak eta sortzen ari den hizkuntza-merkatuari buruz-
ko ikerketak. Garrantzitsua da ez jotzea intuiziora neurketak ematen
dizkigun ehunekoak azaltzeko. Euskaldunak ohartu dira, adibidez,
matematikoki ez daukala zentzurik euskararen erabileraren ehune-
koa euskal hiztunen ehunekoaren parekoa izango dela espero iza-
teak (Martínez de Luna, Isasi eta Altuna 2006). Izan ere, kontuan
hartu behar da hiztun horiek eremu publikoetan hizkuntza hori hitz
egiten duten beste hiztun batzuk aurkitzeko duten probabilitatea.
Horregatik, metodo hau erabili nahi duten guztiei esango nieke eus-
kararen adibideari jarraitzeko, eta ez mugatzeko emaitzak jakinaraz-
tera soilik, baizik eta emaitza horiei buruzko iritziak eskatzeko era
guztietako adituei. Neurketaz gain, erabili emaitzak hobeto ulertzen
laguntzen duten beste ikerketa-metodo batzuk ere. Kale-neurketa
bat argitaratzen den bakoitzean, hura eztabaidatzeko eta aztertzeko
aukera paregabea sortzen da, eta ez dugu hizkuntza-mugimenduari
nota jartzera mugatu behar. Neurketaren helburua da galdera eta
arrasto berriak sortzea, aztertzen jarraitu ahal izateko, eta, hartara,
hizkuntzek zenbait hizkuntza dauden testuinguruetan duten bititza
soziala hobeto ulertzen laguntzeko.

Jacqueline Urla
Antropologia Saila
Massachusettsko Unibertsitatea, Amherst

SARRERA

Hizkuntza-erabileraren behaketek ibilbide luzea dute Euskal Herrian. Siadecoren eskutik, 80ko hamarkadan egin ziren lehenengo behaketak hainbat udalerritan, eta lauzpabost urteko epean errepikatu izan dira, besteak beste, bertan eskuratzen ditugun datuak oso baliagarriak direlako hizkuntzaren bizi-indarraren jarraipena egiteko. Erreparorik gabe esan dezakegu, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek. Horregatik, urtez urte geroz eta udalerrri gehiagotan egiten dira behaketak edo kale-neurketak¹.

Dagoeneko hogeita bost bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu. Hemendik kanpo ere, geroz eta ezagunagoa da ikerlana. Aipagarria da, gainera, atzerrian ikerlanak sortu duen jakin-mina eta interesa.

Euskararen egoera diagnostikatzeko hain baliagarria zaigun tresna ezagutarazi nahi diogu mundu zabalari, eta bereziki hizkuntza gutxiagotua duten komunitateei zein hizkuntza-aniztasuneko egoerak aztertzeko, ahozko erabilera kuantifikatu nahi duten ikerlariei.

Behaketen helburua hizkuntzaren erabilera neurtzea da, kalean eta ahozko mintza-jardunean. Erabilera dugu aztergai, eta behaketa

¹ Euskal Herrian hizkuntza erabileraren behaketak Kale-Neurketa izenez ezagunagoak dira.

da baliatzen dugun teknika. Eskuliburu honetan teknika hau aurkeztuko dugu. Erabiltzaileentzat gida modukoa izan nahi duen liburua duzue esku artean.

Nabarmentzekoa da kalean burutzen diren behaketak aurkeztuko ditugula, batik bat. Hala ere, liburuaren bukaeran lantokietako eta ikastetxeetako behaketez ere arituko gara eta zertzelada orokor batzuk jasoko dira.

Gaia ongi ezagutzen duen atzerriko aditu baten ikuspegitik, Massachusettseko Unibertsitateko Jackie Urla antropologoak horrelako ikerketen beharraz eta behaketaren teknikak duen garrantziaz hitz egin digu hitzaurrean.

“Ahozko erabileraren behaketa” atalean ikerlana sendotzen duten balioak aurkeztuko ditugu. Gure ikuskeran bada oinarriko printzipio bat: hizkuntza baten geroa bermatu nahi bada, ahozko erabileraren jarraipen estua egitea ezinbestekoa da, hizkuntza bizi dadin ezinbestekoa baita hitzunek erabiltzea, eta eguneroko elkarriketetan presente egotea. Hori zein neurritan, eta noren artean, gertatzen den erakutsiko digu ikerlan honek. Galdegai zehatzagoei ere erantzuten die, adibidez: nola banatzen den erabilera zonaldeka, zein ezaugarri dituzten zonalde horiek, eta zein erabilera-portzentaje neurtzen diren; gazteek helduek baino gehiago erabiltzen duten, edo alderantziz; haurrak elkarriketetan presente egoteak erabilera areagotzen duen ala ez; etab.

Horrelako galderei taxuz erantzun ahal izateko, lan honetan oinarri metodologikoak aurkezten dira.

- Metodologiaren oinarria behaketa da. Hori horrela, datu objektiboak izango ditugu esku artean, hitzunari ezer galdetu gabe, ikerlariak jasoko baitu elkarrizketa-hizkuntza eta hitzunaren ezaugarriak zein diren. Beste modu batera esanda, ikertzen ari garen norbanakoaren ustea edota auto-balorazioa kontuan hartu gabe, ikerlariak datu erreala jasoko du. 2. atalean, behaketa bidezko ikerketek bestelako ikerketa-tekniken aldean zein bereizgarri dituzten azalduko dugu.
- Ahozko jardunaren zenbatekoa da neurtzen dena, ez kalitatea.

Erabilera-maila kuantifikatzen da, hiztunaren zuzentasuna edota egokitasuna ebaluatu gabe.

- Normalean elkarrizketa informaletako hizkuntza jasoko dugu, hau da, lagunartean edota ezagunen artean gertatzen den bat-bateko mintza-jarduna.
- Azterketaren unitatea elkarrizketa izango da, eta, elkarrizketen datuak diskrezio erabatekoaz jaso beharko ditugu. Elkarrizketaren iraupena ez dugu kontuan hartuko, elkarrizketak luzeak ala motzak izan, balio bera izango baitute emaitzetan. Elkarrizketa zein hizkuntzatan gertatzen den jasoko dugu, eta elkarrizketa berean hiztunak hizkuntza ezberdinak tartekatzen baditu, nagusitzen den hizkuntza jasoko dugu, beste hizkuntzak kontuan hartu gabe.


Behin oinarri metodologikoak azalduta, 2. atalean kale-erabilera neurtzeko gida deskribatuko da. Gida horretan, zehazki landa-lana nola egin behar dugun azaldu aurretik, behaketa bakoitza egiterakoan berariazko diseinuaren beharraz arituko gara. Landa-lana deskribatzen denean, datuak biltzeko irizpideekin batera, datu-bilketarako euskarriak (fitxa-orria eta telefono mugikorreko aplikazioa) aurkezten dira. Euskarri horiek datu-bilketarako irizpideei erantzuten diete; beraz, beren diseinua garrantzitsua da. Gidan jasotzen dira, halaber, datuen tratamendurako oinarriak eta emaitzak interpretatzeko jarraibideak.

3. atalean, Euskal Herrian teknika hau erabiliz egiten den erreferentziatzko ikerketa nagusiaren errepaso egiten da: Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketarena. Azken neurketan (2011) pausatzen da begiraturia, gaur egungo egoeran fokua jarritz. Baina, garrantzi handikoa baita, urtetan izandako bilakaerari ere tarte handia eskaintzen zaio.

Kaleko espazio irekian izandako esperientzietatik, inguru mugatuagoetara egiten da jauzi 4. atalean. Oinarri metodologikoei eutsiz, lantokietako eta ikastetxeetako neurketen zer-nolakoak eta berezitasunak deskribatzen dira atal horretan.

Hizkuntza-erabilera
behaketa bidez neurtzeko
GIDA METODOLOGIKOA





1.

AHOZKO ERABILERAREN BEHAKETA



Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt eta ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Ez da jarduera arautua edo patroijakinei obeditzen diena. Ezin da espazio- edo denbora-mugarik jarri hizkuntza-erabileraz ari garela. Horrenbestez, erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da eta, taxuz egingo bada, metodologia landu eta findua eskatzen du ezinbestez.

Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia, atal honetan metodologia horren oinarriak aurkeztuko dira. Nabarmentzekoa da ikerketa-teknika berariaz diseinatu dela esku artean dugun eginkizunerako. Horregatik, helburu orokorreko metodoek ez bezala, uste dugu ikerketa-teknika honek badituela ezaugarri aproposak kaleko hizkuntza-erabilera modu egokian jasotzeko.

Ahozko hizkuntza-erabileraren neurketan irizpide sendoak eta tresna egokiak erabiliz gero, neurketaren fidagarritasuna babesten da. Modu argi-goan esanda: oinarri metodologiko zainduak eta egokituak erabili ezean, ezin daitezke neurketa kalitatezkoak egin, eta neurketa nolana hikoak ez dira baliagarri. Hizkuntzen egoera eta bilakaera ondo ezagutu nahi bada, horiei erreparatuta hizkuntza-plangintza eraginkorrak egiteko norabide egokiak hartu nahi badira, ondo diseinatutako eta ondo garatutako neurketak behar dira.

1.1.

Aztergaia: ahozko erabilera

Soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsia digu **erabilera** dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena. Erabilera altua ala baxua den, eta denboran aurrera egin ahala hazi ala txikitu egiten den ikustea da hizkuntzaren “osasu” egoera baloratzeko biderik egokiena. Hizkuntza bakoitzak populazioan duen erabilera mailak, populazio horretako hizkuntzaren ezagutza mailak edo bestelako atxikimendu adierazpenek ematen ez duten informazioa ematen du.

Bestalde, esan beharra dago metodologia honen bidez aztertzen den hizkuntza-erabilera **ahozkoa** dela. Ahozkoa da hiztunaren hizkuntza-erabilerririk naturalena. Bi pertsona edo gehiagoren arteko hizkuntza harreman zuzenena da. Bat-batekotasunak ere ezaugarritzen du ahozko erabilera. Sarritan, ahoz erabiliko den hizkuntza hautatzeak erreflexutik gehiago du erreflexiotik baino.

1.2.

Metodologiaren oinarria: behaketa

Lan honetan aurkezten den metodologia badu besteetatik bereizten duen hirugarren ezaugarri bat ere: ahozko hizkuntza-erabilera **behaketa bidez** neurtzen duela. Behaketa bidezko erabilera-neurketa praxi soziala kuantitatiboki aztertzeo teknika bat da (ikus 1. taula). Bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da.

1. taula. Metodologia kuantitatiboa, kualitatiboa eta parte-hartzailea

	METODOLOGIA KUANTITATIBOA	METODOLOGIA KUALITATIBOA	METODOLOGIA PARTE- HARTZAILEA
ZIENTZIAREN ETA IKERKETAREN HELBURUAK	Gertaera sozialak azaldu, aurreikusi eta kontrolatu	Jokabide sozialen zentzua eta esangurak konprenitu	Errealitatearen aldaketan esku hartu
OBJEKTUA	Gizabanakoen ekintzak. Gertaera sozialak	Aktoreen diskurtsoak. Signifikazioak	Subjektu kolektiboen interesak eta beharrak
HIZKUNTZA	Zenbakiak	Kontzeptuak, metaforak	Sozio historikoa, estrategikoa
SUBJEKTUA	Lagina	Aktore sozialak beren kokapen sozio estrukturaletan	Aktore sozialen auto diagnostikoa
DISEINUA	Sistematikoa, egituratua, errepikakorra	Irekia, malgua, aldakorra	Prozesu irekia: Ekintza-ikerketak -ekintza
TEKNIKAK	Inkesta Kasuen erregistroa Behaketa	Eztabaida-taldea Elkarrizketa sakona Hiruko taldea Bizitza-historia	Ikerketa parte- hartzailea Esku-hartze soziologikoa

Iturria: (Altuna et al., 2008) eta (Juaristi, 2003).

Behaketa gizarte-ikerkuntzarako teknika kuantitatibo nagusietako bat da, nahiz eta orokorrean inkesta edo beste batzuk gehiago erabiltzen diren. Honela definitzen du Jone Miren Hernandezek behaketaren teknika Soziolinguistika Eskuliburuan (Zarraga et al., 2010:310):

Behaketa zuzenak gizakien portaera begiratzea eta aztertzea du helburu, betiere modu sistematiko eta kontrolatuan eta inolako manipulazio eta bitartekorik gabe. Bestelako tekniketan ez bezala, behaketa zuzenean ez da estimulu berezien eragina jasotzen, pertsonen portaerak bereziki behatzen dira.

Teknika kuantitatibo erabiliago horien aldean, behaketak baditu abantailak eta desabantailak:

2. *taula.* Behaketaren abantailak eta desabantailak

BEHAKETAREN ABANTAILAK

- Oro har, beste tekniken kasuan baino eragin gutxiago sumatzen da pertsonengan behatzeko uanean. Juaristik dioenez (Juaristi, 2003:197), ikertzaileak gutxiago baldintzatzen ditu aztertu nahi diren portaera eta adierazpenak, eta horrek datu hobeak lortzen laguntzen du.
- Behaketa baldintza naturaletan egiten baldin bada, errealitatea den bezala ikertuko da, batere aldaketa, eragin edo manipulaziorik gabe.
- Orain arte aipatutako beste teknika batzuetan ikertzaileak, neurri handi batean, ikertuaren menpe gelditzen da, berak erabakitzen baitzuen zein informazio eman. Baina behaketa zuzenaren kasuan, ikertzaileak erabakitzen du zer den berarentzat garrantzitsua eta nahi duena behatzen du.


**BEHAKETAREN
DESABANTAILAK**

- Hainbat kasutan, gainera, behaketa ezinbesteko teknika bilakatuko da; izan ere, egoera, momentua edota ikertuak direnen ezaugarriak direla eta (umeak, oso pertsona nagusiak eta abar) erabil daitekeen teknika bakarra izango da.
- Behaketak ikerketaren testuinguruan murgiltzea dakar eta horrek indar berezia ematen dio teknika honi.

- Behaketak orainaldia ikertzeko baino ez du balio, ez du balio ez iraganerako ez eta etorkizunerako ere.
- Gertakari, egoera edo portaera batzuk ezin dira zuzenean behatu, gizakien intimitatearekin loturik daudela-ko edo ezkutuan geratzen direlako.
- Fenomeno batzuk ezin dira behaketaren bitartez aztertu, aldi berean toki ezberdinetan elkarrekin zerikusia duten ekintzak gertatzen ari direlako. Kasu horretan irtenbidea izaten da behaketa pertsona ezberdinen artean banatzea.
- Gehienetan, behaketan oinarritutako ikerketak beste teknika batzuekin egiten direnak baino luzeagoak izaten dira. Denbora (falta) beraz, muga izan daiteke teknika hau erabiltzeko orduan.

Iturria: (Zarraga et al., 2010: 311-312). Jatorrizko testuaren moldaketa da hemen azaltzen dena.

2. taulako ezaugarriak aztertuta, badago esaterik behaketa zuzena ondo egokitzen zaiola esku artean dugun helburuari, eta aldeko arrazoiek pisu handiagoa dutela kontrakoek baino. Hortaz, teknika hori hobesten dugu ahozko erabileraren neurketa egiteko.

1.3.

Metodologiaren ezaugarri nagusiak

1.3.1.

Diskrezioa

Neurketa burutu ahal izateko, azterketa-guneak ezinbesteko baldintza bat bete behar du: neurtu behar dugun gunean datuak diskrezio osoz jaso ahal izatea. Hitzunek ez dute jakin behar behatuak direnik, horrek ematen baitu aukera hitzunen berezko joera jasotzeko, hizkuntza-erabilerari dagokionez. Lehenago aipatu bezala, honetan datza, hein handi batean, behaketa bidezko neurketen balioa. Diskrezioaren irizpide honek ahalbidetzen du hitzunen praktikak behatzea, eta jasotzen den erabilera behatzailea bertan ez balego bezalakoa izatea.

Datu-bilketa diskrezio osoz egiteko eta hitzuna behatua dela ez ohartzeko lagungarria da neurtzaileak binaka aritzea datuak jasotzen. Horrez gain, datu bilketarako euskarri egokiak izateko bi neurri hartu ditugu azken edizioetan:

1. Datu-bilketa paperean egiten bada, ahalik eta orri tamaina txikiena erabiliko da.
2. Datu-bilketa paperean egin beharrean telefono mugikorrez egiteko berariazko aplikazio bat sortu dugu.

Landa-lanari buruzko azpiatalean azalduko dugu datu-bilketa egiteko paperezko eta telefono bidezko euskarriak nolakoak diren.

1.3.2.

Behaketa-unitatea, elkarrizketa

Metodologia honetan behaketa-unitate oinarrikoa elkarrizketa da. Elkarrizketetan parte hartzen duten norbanakoen kopurua neurtuko dugu, baina unitate nagusia elkarrizketa da.

Neurraldi bakoitzean elkarrizketa bera behin baizik ez da neurtzen. Elkarrizketaren mugak hizkuntza-aldaketak edo kide-aldaketak dira. Horrek esan nahi du elkarrizketa-talde bera hizkuntza berean behin baino gehiagotan behatuz gero, elkarrizketa bakartzat jaso eta erregistratuko dela. Talde baten elkarrizketa behatu eta erregistratu ostean, talde bera beste hizkuntza batean hitz egitera pasatzen bada, beste elkarrizketa bat jasoko da behaketa-fitxetan. Berdin egingo da, lehengo taldetik kideren bat joan bada edo lehengo taldeari kide berriren bat gehitu bazaio: beste elkarrizketa bat jasoko da.

Elkarrizketako parte-hartzaileen artean beste batek hitza hartzeak (parte-hartzaile aktiboa aldatzeak) ez du esan nahi beste elkarrizketa bat hasi denik, non-eta ez den hizkuntza aldatzen.

1.3.3.

Elkarrizketen iraupena ez da kontuan hartzen

Elkarrizketak motzak ala luzeak diren, ez da aintzat hartzen. Fitxetan ez da jasotzen elkarrizketen iraupenari buruzko daturik. Neurketak hizkuntza-hautuen maiztasuna neurtzeko balio du, ez hizkuntza bakoitzaren erabilera-denbora neurtzeko.

1.3.4.

Elkarrizketak hizkuntza bakarrean

Behatzaileek elkarrizketen hizkuntza jasotzen dute. Horretarako ez da beharrezkoa elkarrizketa-taldeko kide guztiak hitza hartzen behatzea; elkarrizketa-taldeko kide batek darabilen hizkuntza beste guztiek darabiltena dela suposatuko da, kontrakorik behatu ezean.

Irizpide honekin lotuta, zalantzarako bi bide nagusi daude.

Lehenik eta behin, hizkuntza-alternantziarena aipatu behar da. Hiztun batek, hitz-hartze berean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituen kasuez ari gara. Hizkuntza bateko eta besteko esaldiak etengabe eta antzeko maiztasunez tartekatzen diren kasuak hemen kokatuko genituzke. Baita esaldiak hizkuntza desberdinetako hitzez osatzen direneko kasuak ere. Elkarrizketa mota hauek ez ditugu jasoko, neurketatik kanpo geratuko dira.

Bigarren zalantzarako bidea elkarrizketa elebidunena litzateke: elkarrizketa berean, solaskideetako bat(zu)ek hizkuntza bat eta besteek beste bat erabiltzen duten elkarrizketak, alegia. Kasu hauek jaso nahi baditugu, elkarrizketan parte hartzen duten kide guztiak entzun beharko ditugu behatutako elkarrizketa guztietan.

1.3.5.

Neurketa bakoitzak bere diseinu propioa du


Behatu beharreko eremuen ezaugarrien arabera diseinatuko da ikerketa. Diseinuan behaketaren unea eta iraupena, guneak, aztertu nahi diren aldagaiak, eta abar zehaztuko dira. Neurketa bakoitzeko diseinua nola egin behar den eta zein ezaugarri hartu behar diren kontuan, hurrengo atalean landuko dugu. Hala ere, garrantzitsua da aipatzea kasuan kasuko diseinuak

sortzea dela egokiena. Diseinu-lan horretarako, komeni da aztertuko den errealitatea ongi ezagutzen duten pertsonak parte hartzea. Leku, ordu eta abar egokienak zeintzuk diren erabakitzeko, testuinguruaren ezagutza hori oso baliagarria izan daiteke. Ez da komeni neurketa batean erabilitako diseinua beste testuinguru bateko neurketan goitik behera kopiatzea, kasu bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu gabe.

Herri edo gune berean hizkuntza-erabilerak denboran zehar duen bilakera aztertu nahi izanez gero, ordea, neurketak diseinu berbera errepikatuz egitea komeni da, alderatzen diren datuak ahalik eta baldintza antzekoentan jasoak izan direla ziurtatzeko.

Hizkuntza-erabilera
behaketa bidez neurtzeko
GIDA METODOLOGIKOA





2.

KALE-ERABILERAREN NEURKETA EGITEKO GIDA



Behaketa bidezko hizkuntza-erabileraren neurketak hainbat helbururekin eta hainbat esparrutan erabiltzen dira, nahiz eta esparruetako batek duen tradizio handiena: kaleak. Kale-erabileraren neurketak herri edo auzo bateko hizkuntzen egoerari neurria hartzeko baliabideak dira, eta hizkuntza bakoitzaren joera nolakoa den, gehiago ala gutxiago erabiltzekoa, jakiteko balio dute.

Herriko egoera soziolinguistikoa deskribatzeko, beste hainbat adierazle kuantitatibo egon daitezke: erroldako datuak, ikastetxe eta hizkuntza-eskoletako matrikulazio-datuak, inkestak... Baina datu horiek guztiek adierazten dutena, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen da.


Kalea espaziorik neutralena da. Adin, sexu, klase eta mota guztietako pertsonak nahasten diren lekua da. Guztiona den edo inorena ez den espazioa, elkarbizitza erreala gauzatzen den gunea da, baita hizkuntzei dagokienez ere. Alde batetik, herritarren jarduera publikorako eremua da (lagunekin topatzeko, jolasteko, bizilagunekiko harremanetarako...) eta, bestetik, eremu pribatu batetik besterako bidea da: etxea, lantokia, eskola eta zerbitzuguneak konektatzen ditu, besteak beste. Kontuan eduki behar da, kalearen mugak eraikinak direla eta, beraz, eraikin hauetako jarduerak inguratzen duela kalekoa: merkataritzak, informazioak, publizitateak eta abar.

Hizkuntza baten kaleko erabilera haztea hizkuntzaren hedapenerako joeraren seinale da, bizi-indarraren adierazle. Kaleko erabilera jaisten bada, aldiz, hizkuntza hori esparru publikotik pribatura erretiratzeko ari denaren seinale izan liteke, joera erregresiboaren adierazlea nolabait.

Kale-erabileraren neurketak tresna interesgarria izan daitezke askotariko giza talde eta erakundeentzat, besteak beste: tokiko administrazioentzat, hizkuntza-plangintzak diseinatu eta aurrera eramateko; hizkuntza baten aldeko mugimendu herritarrentzat, beren helburuen betetze-maila baloratzeko; edo hiriguneetako kultura aniztasunaren alderdi soziolinguistikoan interesa duten talde eta ikerlarientzat.

Kale-erabileraren neurketa burutzeko jarraitu beharreko urrats nagusiak, oro har, beste hainbat ikerketatan jarraitzen direnak dira: diseinua, landa-lana, datuen tratamendua eta emaitzen irakurketa (ikus 1. irudia).

1. irudia. Ikerketaren urratsak



Ondorengo ataletan urrats hauek banan-banan azalduko dira, kale-erabileraren neurketa egin nahi duen orok gida-lerro nagusiak eskura izan ditzan.

2.1.

Diseinua

Edozein ikerketatan, helburura iristeko burutu behar den ekintzen plana jasotzen da diseinuan. Kale-erabileraren neurketek, gehienetan, herri edo auzo bateko kaleetan ematen den hizkuntza-erabileraren deskribapen kuantitatiboa egiteko helburuari erantzuten diote.

Ikerketaren emaitzetan adieraziko dena herri edo auzo bateko hizkuntza-portaeraren deskribapena izango bada, garrantzitsua da herriaren adierazgarri diren lekuak, momentuak eta pertsonak izatea gure informazio-iturria. Horregatik, emaitzen baliagarritasuna egiten dugun diseinuaren kalitatearen araberakoa izango da. Kale-erabileraren neurketa egiteko, aurrez definitu behar dira jasoko diren aldagaiak, neurketa egingo den guztiak, ordutegiak, eta jaso beharreko laginaren tamainak.

Ikerketaren diseinuak helburuei behar bezala erantzun diezaien, komenigarria da aztertuko den errealitatea ongi ezagutzen duten pertsonak diseinu-lan horretan parte hartzea. Herritarrek ematen duten informazioa da iturbururik onena neurketako zonalde eta une esanguratsuenak identifikatzeko. Horrela doitzen da diseinua eta horrek eragin nabarmena du ikerketaren kalitatean.

2.1.1.

Aldagaiak

Kale-erabileraren neurketan, aldagai nagusia erabiltzen den hizkuntza da. Hizkuntza da, beraz, *menpeko aldagaia*. Hortik aurrera, hiztunen informazioa jasotzeko erabil ditzakegun beste aldagai guztiak aldagai askeak izango lirateke. *Aldagai aske* deitzen diegu hipotetikoki menpeko aldagaiarekin lotuta dauden aldagaiak.

Esate baterako, demagun hipotesi bat egiten dugula: 40 urtetik gorakoek gehiago erabiltzen dute X hizkuntza 40 urtetik beherakoek baino. Kasu horretan, kalean hiztunek zein hizkuntza erabiltzen duten behatzeaz gain, hiztun horiek 40 urte baino zaharragoak ala gazteagoak diren ere jaso beharko genuke landa-lanean. Horrela eginez gero, ikerketaren emaitzek berretsi ala ezeztatu egingo lukete gure hipotesia.

Diseinua egiterakoan, beraz, erabilera-hizkuntzaz gain zein aldagairi buruzko informazioa jasoko den erabaki beharko da. Erabaki hau hartzeko, komeni da hiru alderdi kontuan hartzea:

1 INTERESA

Jaso nahi diren aldagaien eta erabilera-hizkuntzaren artean loturaren bat badagoela hipotesizat eduki ezean, aldagai horiei buruzko informazioa biltzearen zentzua zalan-tzazkoa da.

Hizkuntza bat erabiltzen duten hiztunen profila deskribatu nahi bada, aldagai sozial deskriptibo nagusiak erabiltzea da ohikoena eta egokiena: adina, generoa...

2 ESKURAGARRITASUNA

Kontuan hartu behar da hautatzen diren aldagaien arabera sailkatu beharko direla kalean behatzen diren pertsonak. Horregatik, aldagai horiei buruzko informazioa behatze hutsarekin eskuratzeko aukera egon behar da.

3 BIDERAGARRITASUNA

Irizpide honek jaso nahi diren aldagaien kopuruarekin du lotura. Informazioa fitxetan jaso behar denez, aldagai askori buruzko informazioa aldi berean jasotzeko mugak eta

zailtasunak izan ditzakegu. Datu-bilketan informazioa jasotzeko moduak erraza, argia eta erosoak izan behar du, beraz, beharrezko aldagaiak baizik ez dira jaso behar.

Euskal Herrian orain arte burutu izan diren kale-erabileraren neurketetan honako aldagai hauei buruzko informazioa jaso da:

- **Adina:** Hiztunak lau adin-taldetan bereizten dira. Adin-taldeen mugak zehazki definitu arren, kalean behaketak egitean neurtzaileak berak ebatzi behar du zein tartetan kokatzen den hiztun bakoitza. Lau adin-talde edo gehiago bereiztea, eta hauetako bakoitzak zein adin-tarte ordezkaturiko duen erabakitzeari ikerlariaren zeregina da. Eredu bezala, honako banaketa hau erabil liteke:
 - Haurrak: 0-14 urte
 - Gazteak: 15-24 urte
 - Helduak: 25-64 urte
 - Adinekoak: 65 urte edo gehiago²
- **Sexua:** Hiztunak emakumezkoak ala gizonzkoak diren jasotzen da.
- **Haurren eragina:** Elkarrizketak jasotzean haurrak presente dauden eta behatzeko momentuan hitza haurrak duen ere jasotzen da. Honela, datuen azterketan, haurrik gabeko elkarrizketak, haurren artekoak, helduek

2 1989an, Euskal Herriko I. Kale Neurketan, diseinu hori egin zen eta datuen alderagarritasuna ez galtzarren adin-banaketa mantendu egin da.

haurrei hitz egiten dietenak eta hurrek hel-
duei hitz egiten dietenak bereiz daitezke.

Horiek dira zuzenean neurtzen diren aldagaiak (landa-lanaren atalean fi-txa-orrietan esplizituki agertzen dira datu horiek). Zeharka bestelako in-formazio osagarria ere lor daiteke, esate baterako, ondorengo galderen erantzuna topa dezakegu:

- Udallerri batean, zonalde batetik bestera alde handiak al daude hizkuntzen erabileran?
- Neurraldien arabera emaitzak kontuan izanda, astegunean ala asteburuan erabilera datuak aldatzen al dira? Eta, egun berean goizean ala ilunabarrean?
- Solaskide kopuruaren arabera emaitzak hartuta, ba al dago alderik bi pertsonaz osatutako elkarrizketetan ala talde handi-
goetan?

2.1.2.

Lekua: gunek eta ibilbideak

Neurketaren emaitzak herri edo hiri bateko kaleetan gertatzen denaren adierazgarri izatea nahi badugu, neurtuko diren lekuak zehazteak berebi-ziko garrantzia dauka. Alde batetik, potentzialki profil guztietako hiztunak neurtzea ahalbidetu behar dute; ez da komeni ezaugarri zehatz batzuk dituen jendea soilik ibiltzen den lekuetara mugatzea, jende mota guztien

adierazgarri izan nahi du-eta neurketak. Beste alde batetik, guneak eta ibilbideak ondo definitzea emaitzak estatistikoki adierazgarriak izan daitezzen bermatzeko moduetako bat da. Zonalde eta kale jendetsuenak neurtezak elkarriketa kopuru altua jasotzea ahalbidetuko du. Normalean, bi irizpideak elkar lotuta joan ohi dira: askotan zonalde jendetsuenak izaten dira askotariko jende motak elkartzeko guneak.

Neurtuko diren lekuak ibilbide gisa mugatu eta antolatzen dira, neurtuko den herri edo hiriaren ezaugarrien arabera. Sarritan, hiriko auzo bat edo ingurune bat neurtu behar denean, elkarren ondoan edo jarraian dauden hainbat kalez osatutako ibilbidea definitzen da. Neurtzaileak kalez kale ibiltzen dira, nahiz eta ez den beharrezkoa ibilbide horretan norabide zehatz bat jarraitzea. Beste batzuetan, ibilbideak zehaztu ordez, guneak mugatzen dira. Plaza handi bat, haur-parke bat, geltoki baten ingurua... Interes bereziko guneak dira horiek denak. Horrelako guneetan, neurtzaileak gunearen alde batetik bestera ibiltzea komeni da, kalez aldatu ez arren.

Neurtzaileak, zehaztutako ordutegietan, zehaztutako ibilbide edo guneetan ibiliko dira bertan gertatzen diren elkarriketen inguruko datuak jasotzen. Neurtuko diren ibilbideak edo guneak zehaztean beren hedadura eta ezaugarriak arreta handiz zainduko dira, errealitatea modu egokian jaso dadila ziurtatu beharko da eta. Honako fenomeno hauek hartu behar dira aintzat:

- Ibilbide edo gune txikiegia definituz gero, behaketaren diskrezioa arriskuan jar liteke. Oso eremu txikian denbora luzez datuak jasotzen aritzea bertan dauden hitzunei deigarri gerta dakieke. Ibilbide edo gune handiegia mugatzeak, ordea, ezaugarri oso desberdinak dituzten lekuak gune berean biltzearen arriskua sor dezake.
- Profil oso ezberdineko hiztunen bilgune diren lekuak edo jarduera oso desberdinak bu-

rutzeko erabiltzen direnak unitate bakarrear jasotzek, emaitzak desitxuratu egin ditzake.

- Ibilbide jakin bateko zonaldeetan pasatako denbora ez bada errespetatzen neurraldiz neurraldi (alegia, ibilbideko zonaldeei ez ba-zaie antzeko denbora eskaintzen neurraldi batetik bestera), emaitzak oso ezberdinak izan daitezke.

Hedadura zehazteko bi alderdi eduki behar dira kontuan, beraz: batetik, ibilbide txikiegiak dituzten mugak eta arriskuak, eta, bestetik, ibilbide handiegiak eragin dezaketen desitxuraketa. Hori horrela, ikerketak aztertu nahi duen eremuaren arabera (herri/hiria adibidez), ibilbide bat edo gehi-ago definitu beharko dira.

Adibide gisa, 2. irudian Baionako ibilbide bat jaso dugu.

2. irudia. Baiona hiriko “Baiona ttipia” ibilbidea



2.1.3.

Denbora: ordutegiak eta neurketaren iraupena

Denborari dagokionez, bi aspektu definitu behar dira diseinuaren urratsean. Alde batetik, neurketaren landa-lanaren iraupen osoa zenbatekoa izango den. Bestetik, zein ordutegitan burutuko diren neurraldiak (goizez, arratsaldez...). Erabaki horiek neurketa-gunea definitzerakoan erabilitako bi irizpide nagusien arabera hartu behar dira: potentzialki profil guztietako hitzunak neurtu ahal izatea (1), eta emaitzak estatistikoki adierazgarriak izateko beharrezko elkarrizketa kopurua behatzea (2).

Neurketaren emaitzak kaleetan gertatzen denaren isla izan daitezen, komenigarria da kalean elkarrizketa asko izaten diren uneetan zentratzea behaketa. Jendeak kaleko bizitza eguneko edo asteko zein tartetan egiten duen ezagutu behar genuke, neurketa-uneak zehazteko. Kalean jende gehien dabilen momentuak dira lehentasunez neurtu beharrekoak.

Hala eta guztiz ere, ez da nahikoa asteko une jendetsuenak identifikatu eta neurraldiak horietara soilik bideratzea. Izan ere, horrela eginez gero, zenbait gizarte-sektore behaketetatik kanpo uzteko arriskua legoke. Une jendetsuenak identifikatzeaz gain, kaleko jarduera mota desberdinak garatzen diren uneak jasotzea komeni da: lanegunak, jaiegunak, jendea erosketatan dabilen momentuak, haurrak jolasean aritzen direnak...

Azken batean, kaleetan behatzen diren elkarrizketetatik profil guztietako herritarren hizkuntza-erabilerari buruzko informazioa eskuratzea da xedea; gizonena eta emakumeena, adin-talde guztietako jendearena, maila ekonomiko guztietakoarena eta abar.

Neurketaren iraupenari dagokionez, herri batean neurtu nahi dena guxtienez bi orduko iraupena duten neurraldietan banatzea gomendatzen da; gehienbat, neurraldi motzagoak eginez gero, ordu kopuru jakin bateko datuen bilketa lortzeko neurraldi gehiago egin beharko liratekeelako, eta horrek lan gehiago eskatzen duelako.

Gainera, asteko egun eta ordutegi bakoitzean gutxienez bi neurraldi egitea ere gomendatzen da. Toki eta une zehatz batean ohikoa ez den giroa topatzeak herriko datuak desitxuratzeko izan dezakeen arriskuaz babesteko neurria da hau. Beraz, neurraldiei dagokienez, diseinua bikoiztea proposatzen da.

Aipatutako bi irizpideok (gutxienez bi orduko neurraldiak eta neurraldiak bikoiztea) hobeto ulertzeko, 3. irudian ikus daiteke neurketa-orduen banaketa baten adibidea:

3. irudia. Neurketa-orduen banaketa baten adibidea

EZAUGARRIAK:

- 24 orduko datu-bilketa egin nahi da.
- 3 ibilbide definitu dira herrian.
- Bakoitzean 8 ordu neurtuko dira.
- Guztira 6 neurtzaile arituko dira (ibilbide bakoitzeko 2 neurtzaile)

NEURRALDIAK:

- Asteazkena 7, 11:00-13:00
- Asteazkena 7, 17:00-19:00
- Ostirala 9, 19:00-21:00
- Larunbata 10, 11:00-13:00
- Asteazkena 14, 11:00-13:00
- Asteazkena 14, 17:00-19:00
- Ostirala 16, 19:00-21:00
- Larunbata 17, 11:00-13:00

ASTL	ASTR	ASTZ	OSTG	OSTR	LARN	IGNL
		7	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

IBILBIDEAK

	1. ibilbidea	2. ibilbidea	3. ibilbidea	Ibilbideko orduak
Asteazkena	4	4	4	12
Ostirala	2	2	2	6
Larunbata	2	2	2	6
GUZTIRA	6 neurtzaile			24 ordu

Neurraldi horietan –guztira, 24 orduetan– jasotako datuetatik udalerriko erabilera maila kalkulatu dugu. Horrela, hizkuntza-erabileraren unean uneko argazkia aterako dugu. Horrez gain, erabileraren bilakaera ezagutu ahal izateko, denbora tarte batean (gutxienez urtebeteko tarte utzi beharko litzateke) beste neurketa bat egingo dugu, lehenengo neurketaren disenua bere horretan errepikatuz. Kontuan izan behar da datuak alderagarriak izateko ezinbestekoa dela neurketaren ibilbideetan, egunetan eta orduetan aldaketarik ez egotea.

2.1.4.

Neurtu beharreko elkarrizketa kopurua: lagina eta fidagarritasun maila

Behaketa neurtutako erabilera-datuak fidagarriak direla esan ahal izateko, diseinu egoki bat egin behar da (aldagaiei, denborari eta espazioari dagokienez) eta ahalik eta elkarrizketa gehien neurtu behar dira. Baina zenbat elkarrizketa neurtu behar dira neurketaren emaitzak onargarritzat jotzeko?

Ikerketa-teknika kuantitatiboetan, datuak aurkeztearekin batera, datuen fidagarritasun eta errore mailak ere ematen dira. Diseinua prestatzean, beharrezkoa da jakitea zer erlazio dagoen errore eta konfiantza mailen eta horiek lortzeko behar den laginaren artean. Askotan, herrialde oso bati dagozkion inkestetan adibidez, populazio infinituetarako ausazko laginetaren bidez kalkulatu da errore eta konfiantza maila zehatz bat lortzeko zenbateko lagina behar den.

Behaketa bidezko kale-erabileraren neurketen kasuan, ez da posible beste teknika mota batzuetan erabili ohi diren formula estandarrek erabiltzea lagina kalkulatzeko. Horregatik, behaketa bidezko erabilera-neurketetarako berariaz landu behar izan da laginaren kalkulurako eredu matematikoa. Yosu Yurramendi irakasleak gidatu zuen eredu matematiko propioaren

garapena. Eredu horren oinarriak, 2009an kaleratutako txosten batean bilduta daude (Yurramendi eta Altuna, 2009).

Lan honek azterketa zehatzagorako bidea ematen duen arren, komeni da gutxienez zenbait gai argitzea lagina nola kalkulatu den ulertu ahal izateko.

Eredu matematikoan, behaketetan neurtzen den lagina eta honek ordezkatu nahi duen populazioa elkarrizketaz osatuta daude. Kanean gerta litezkeen elkarrizketa guztietatik batzuk neurtzen ditugu. Gerta litezkeen eta neurtzen ditugun kopuruen arteko erlazioak esango digu neurketatik eskuratzen ditugun emaitzak zenbateraino diren fidagarriak.

Herri bateko kaleetan gerta litezkeen elkarrizketen kopurua, berez, mugagabea da, infinitua. Laginaren kalkulurako erreferentzia bat erabili da, ordea, zenbait muga suposatuzat emanaz. Adibidez, herriko biztanleria hartu da abiapuntuko kopurutzat. Herri bateko kaleetan behatuak izan daitezkeen pertsona guztiak ez direla herri horretako biztanleak gauza jakina da. Baina era berean, gauza jakina da ez dela ohikoa edo normala herri bateko biztanle guztiak kanean egotea. Horregatik, une batean kanean dagoen populazioaren kalkulurako kanpotik etorritakoak gehitu eta herriko kaleetan ez dauden bertakoak kentzea zuzena balitz ere, laginaren kalkulurako herriko biztanleriaren datua hartzen da oinarritzko erreferentziatzat.

Gerta litezkeen elkarrizketen populazioa kalkulatu ahal izateko, biztanleriaren datuaz aparte, pertsonen artean gerta litezkeen elkarrekintzak kuantifikatu behar dira, nolabait. Horretarako, funtsezko hiru balio estimatu behar izan dira eredu-matematiko honen lanketan.

Lehenengoa harreman pertsonalen batez besteko tamainarena da. Kanean ematen diren elkarrizketak, gehien-gehienetan, gertuko harremana duten pertsonen artekoak dira. Familiakideen, lagunuen, lankideen edo bizilagunen arteko harremanak dira, esaterako, kanean gertatzen direnetatik gehienak. Horregatik, pertsona bakoitzak maila horretan duen batez besteko harre-

man sarearen tamaina finkatuz gero, kalean gerta litezkeen elkarrizketen kopurua mugatzeko beste balio lagungarri bat izango genuke. Gai honen inguruan gizarte-zientzien arloan dagoen bibliografia azertu ostean harreman-sare pertsonalaren batez besteko tamainaren balioa ere laginaren kalkulurako eredu matematikoan kontuan hartu da. Gure azterketan erabilitako erreferentzia nagusia *Dunbar-en zenbakia* da³.

Bigarrena, kalean gertatzen diren elkarrizketen solaskide kopuruarekin lotuta dago. Esan dugun bezala, lagina elkarrizketatan kalkulatu dugu, hori baita hizkuntza-erabileraren azterketarako oinarrizko unitatea. Baina era berean, aipatu bezala, herriko biztanleriaren datutik hasten da laginaren kalkulua. Pertsona kopuru batetik elkarrizketa kopuru batera pasatzeko, ezinbestekoa da jakitea zein joera duten pertsonak binakako elkarrizketak izateko, hirunakakoak izateko edo talde handiagoetan bildu eta hitz egiteko. Solaskide kopuruaren arabera kalean elkarrizketak izateko joeraren azterketa egin da, eta, bide batez, hortik ateratako balioa laginaren kalkuluan erabiltzeko modua aurkitu da.

Hirugarrena, hizkuntza-gaitasunaren faktorea da. Nabaria denez, hizkuntza bat ezagutzen ez duten pertsonak ezin dute hizkuntza hori erabili. Hori dela eta, kalean hizkuntza batean gerta litezkeen elkarrizketak bertan dabilen jendearen hizkuntza-gaitasunak ere mugatzen ditu. Badakigu aurrez hizkuntza bat erabiltzeko gai ez diren pertsonak ezin izango dutela hizkuntza horretan inongo elkarrizketarik izan. Honela bada, neurtuko diren hizkuntzetako bakoitza biztanleriaren zein portzentajek ezagutzen duen kontuan hartzen da laginaren kalkuluan.

Aipatutako horiek dira, beraz, laginaren kalkuluan aintzat hartzen diren balioak. Horien arabera kalkulatu dugu zenbatekoa den neurketa baten emaitzen konfiantza maila eta errore maila.

3 http://en.wikipedia.org/wiki/Dunbar%27s_number
Zenbaki hau muga kognitibo baten gisakoa da, eta adierazten du pertsona batek 150 bat pertsonarekin eduki ditzakeela harreman egonkorrak.

3. taulan % 95eko konfiantza maila eta ± 5 eta ± 2 ko erroreekin egindako kalkulu batzuk ikus daitezke, ereduaren arabera neurtu beharreko laginaren erreferentzia gisa.

3. taula. Biztanle kopuruaren arabera errore-mailak eta laginak

HERRIKO BIZTANLE KOPURUA	HERRIKO ELEBIDUN PROPORZIOA	EMAITZEN ERRORE-MAILA	EMAITZEN KONFIANTZA-MAILA	NEURTU BEHARREKO ELKARRIZKETA KOPURUA
2000	%10	± 2	95%	864
10000	%10	± 2	95%	864
25000	%10	± 2	95%	864
100000	%10	± 2	95%	864
300000	%10	± 2	95%	864
2000	%25	± 2	95%	1797
10000	%25	± 2	95%	1800
25000	%25	± 2	95%	1801
100000	%25	± 2	95%	1801
300000	%25	± 2	95%	1801
2000	%50	± 2	95%	2395
10000	%50	± 2	95%	2400
25000	%50	± 2	95%	2401
100000	%50	± 2	95%	2401
300000	%50	± 2	95%	2401
2000	%80	± 2	95%	2208
10000	%80	± 2	95%	2212
25000	%80	± 2	95%	2213
100000	%80	± 2	95%	2213

300000	%80	±2	95%	2213
2000	%10	±5	95%	139
10000	%10	±5	95%	139
25000	%10	±5	95%	139
100000	%10	±5	95%	139
300000	%10	±5	95%	139
2000	%25	±5	95%	289
10000	%25	±5	95%	289
25000	%25	±5	95%	289
100000	%25	±5	95%	289
300000	%25	±5	95%	289
2000	%50	±5	95%	384
10000	%50	±5	95%	385
25000	%50	±5	95%	385
100000	%50	±5	95%	385
300000	%50	±5	95%	385
2000	%80	±5	95%	354
10000	%80	±5	95%	355
25000	%80	±5	95%	355
100000	%80	±5	95%	355
300000	%80	±5	95%	355

Esan bezala, eredu matematikoaren formalizazioa modu xeheagoan aztertu nahi duenak (Yurramendi eta Altuna, 2009) txostenera jo dezake. Hala ere, ereduan sakondu gabe neurketaren oinarriko datuak erabilia (herriko biztanleria eta elebidunen proportzioa) lagina kalkulatzeko tresna Interneten eskuragarri dago: www.soziolinguistika.org/lagina

2.1.5.

Erabileraren bilakaera: edizioz edizioko jarraitutasuna

Erabilera neurtzeak dituen onuren artean, bada bat azpimarratu beharrekoa: bilakaeraren azterketa. Erabileraren argazki estatikoak informazio aberatsa ematen du, bistan da. Baina, are eta aberatsagoa da denboran zeharreko bilakaera ezagutzea.

Neurketak maiztasun batekin errepikatuz gero, ikuspegi dinamiko baten jabe egiten gara, eta horrek joerak eta gora-beherak erakusteko aukera ematen digu. Hizkuntzaren erabileran eragin nahi bada, derrigorrez jaso eta aztertu behar da denboran zeharreko panorama hori.

Aukera hori, ordea, zorrotzasun metodologia zainduta baino ezin daiteke baliatu. Ezin izango ditugu bi neurketa konparatu, ez badira diseinu-bal-dintzak berdin errepikatu bietan. Horra, bada, neurketaren diseinatzailerak buruan eduki behar duen premisa bat: neurketaren diseinuak bermatu behar du gero ere errepikatu ahal izango dela.

Datuak alderagarriak izateko neurketaren ezaugarriak ez direla aldatu behar, hau da, neurketa guneei (ibilbideei), egunei, eta orduei eutsi egin behar zaie edizioz edizio.

Oraina ez ezik, iragana eta geroa ere aintzat hartu behar da. Bestela, orain egindako okerrak denboran zehar luzatzeko arriskua dago. Eta, esan dugunez, diseinuari bere horretan eutsi beharrak zuzenketak eragoztear ekar lezake.

Ondorioz, esan dezakegu edizioz ediziozko jarraitutasunak sekulako garrantzia daukala eta balio osagarria eransten diela kale-neurketei. Baina, aldi berean, oso kontuan hartzekoa da diseinuak ez duela oztopatu behar aukera hori.

2.2.

Landa-lana

Behaketa bidezko erabileraren neurketan, landa-lanaren ardua neurtzaileek dute. Horregatik, ezinbestekoa da kaleko behaketetan topa litekeen kasuistika guztia kontuan hartzen duten irizpideak garbi izatea. Irizpide zorrotzak definituta baizik ezin daitezke elkarren artean alderagarriak izan neurtzaile desberdinek jasotako datuen emaitzak.

Neurtzaileen lana, diseinuan zehaztutako ordutegietan eta zehaztutako guneetan gertatzen dena behatzea da. Definitutako denbora-tartean eta ibilbidean behatzen dituzten elkarrizketen ezaugarriak jaso behar dituzte fitxa-orrietan edo telefono mugikorrean. Ikus dezagun hurrengo puntuetan zeintzuk diren bi euskarri horien berezitasunak.

2.2.1.

Fitxa-orriak

4, 5 eta 6 irudietan ikus daiteke kale-erabileraren neurketa egiteko fitxa baten eredua. 4 irudiko fitxa sei ataletan banatu dugu, datu-bilketa nola egin behar den azaltzeko:

- Goialdeak (1) neurraldi bakoitza identifikatzeko datuak biltzen ditu: herria, ibilbidea, eguna, ordua eta neurtzaileak.
- Taula nagusian elkarrizketa bakoitzak lerro bat betetzen du eta lerro/elkarrizketa bakoitza zenbaki baten bidez identifikatzen da (2).

- Zenbakiaren eskuin aldeko zutabeen, elkarrizketa zein hizkuntzatan den jasotzen da, dagokion hizkuntzaren koadrotxoa markatuz.
- Taularen erdialdea (4) elkarrizketako hiztunen ezaugarri nagusiak identifikatzeko balio duen blokeak osatzen du. Lau zutabe nagusitan sailkatzen dira solaskideak, adin-taldeen arabera. Eta adin-talde bakoitzaren zutabeen, gelaxka grisa eta urdinaren bidez bereizten dira emakumezko eta gizonezko solaskideak. Gelaxka bakoitzean zenbakiz adierazi behar da elkarrizketako partaideen artean zenbat dauden adin-talde eta sexu bakoitzeko.
- Azkenik, fitxaren eskuinaldeko zutabeen (5), elkarrizketa bakoitza behatzean haurrak hitz egiten ari ziren ala ez seinalatu behar da dagokion laukitxoan.
- Fitxaren beste aldean, elkarrizketen informazioa jasotzeko eremuak errepikatzen dira (2, 3, 4 eta 5). Baina aurrealdean neurraldiaren identifikazio datuak dauden lekuan, atzealdean neurketan eragina izan dezaketen jazoerak azaltzeko oharren tarte (6) du, fitxak.

5. irudia. Datu-bilketarako fitxa ereduaren aurrealdea

**HIZKUNTZA
ERABILERAREN
KALE NEURKETA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA:
T: 943 592 556
klusterra@soziolinguistika.org

HERRIA: _____

IBILBIDEA: _____

EGUNA: _____ ORDUA: _____

NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZTEKERA FRANTSES (ipar Eri)	BESTERIK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak hitz egiten	
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65... urte)	BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa | Gizonezkoa

6. irudia. Datu-bilketarako fitxa ereduaren atzealdea

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA FRANZESA (Ipar E)	BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (24-64 urte)	Adinekoak (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
								BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa | Gizonezkoa

2.2.2.

Telefono mugikorra

Aurreko atalean aurkeztutako fitxa-orriaren erreprodukzioa garatu dugu telefono mugikorretarako edo smartphoneetarako. Berariazko aplikazio informatiko bat eta interfaze bat sortu dira. 7. irudian pantaila batzuk ikus daitezke.

Egindako aplikazioak honako ezaugarri tekniko hauek ditu: web-aplikazioa da, teknologia estandarrak eta libreak erabili dira, geolokalizatorako aukera ematen du, datuak modu lokalean edo zerbitzari zentralizatu batean gorde daitezke, eta zuzenean datu-base bat sortzen da.

Erabilerari dagokionez, honako hauek dira aplikazioaren funtzionalitate nagusiak:

- Lan-metodologia jarraituz, bikote bakoitzari neurraldi bat egiteko behar den informazioa eskaintzeko gai da: egin beharreko edo bukatu gabeko neurraldiak, neurraldi bakoitzaren ibilbideak, eta neurraldia egiteko beharrezkoa den informazio osagarria (data, etab.).
- Telefonoaren GPSaren bitartez elkarrizketa eta neurraldi guztien kokatze fisikoa jasotzen du aplikazioak.
- Aplikazioak datu-sarearen konexioarekin edota konexiorik gabe ere lan egiten du. Datu-sare baten konexioa izanez gero, datuak zuzenean zerbitzarian jasotzen ditu. Datu-konexiorik gabe dagoenean, datuak lokalean jasotzeko gai da, berriro “on-line” egon bi-

tartean. Era honetan, 3G edo datu-sarearen estaldurarekin sor daitezkeen arazoak ekiditen ditu.

7. irudia. Mugikorretarako aplikazioaren interfaze batzuk



2.2.3.

Datu-bilketarako irizpideak

Datuak biltzean badira aintzat hartu beharreko zenbait irizpide:

- Neurketa behaketa bidez egiten denez, inkestetan ez bezala, neurtzaileak **ez die sekula galderarik egin behar** elkarrizketan parte hartzen duten hiztunei, ez erabiltzen duten hizkuntzari buruz ezta beren ezaugarriei buruz ere.
- **Normalean pertsona bakarrari entzungo diogu** hizketan, nahiz eta taldea bikoia, hirukoa edo gehiagokoa izan. Fitxa-orrian taldeko guztiak jasoko ditugu. Adibidez, lau lagun elkarrekin daudenean, nahiz bakarrak hitz egin eta beste hirurak entzule izan, guk fitxa-orrian lau lagun entzun ditugula jarriko dugu.
- Neurketa bakoitza **bi neurtzaile**ren artean egingo da. Bi pertsona hauek zehaztutako ordu eta lekuetan ibiliko dira kalean zehar, behatzen dituzten elkarrizketei buruzko informazioa fitxetan erregistratzen. Bikoteka neurtzea egokiena dela pentsatzeko hainbat arrazoi daude.

Lehenik eta behin, neurraldian sor daitezkeen zalantzak eta arazoak gainditzeko lagungarria da bi neurtzaile elkarrekin aritzea. Esate baterako, ohikoa da zalantzak sortzea

behatutako elkarrizketa bateko kideen ezau-garrien inguruan (adin-taldea, sexua...) edo entzundako elkarrizketa baten hizkuntzari buruz. Gerta daiteke, gainera, elkarrizketa baten datuak jaso bitartean, neurtzaileek beren inguruan elkarrizketa gehiago entzutea. Kasu hauetan, aldi berean datuak jasotzeko lana eta gainontzeko elkarrizketak behatzeko egingarriagoa da binaka.

Bigarrenik, behaketa bidezko neurketaren funtsezko ezaugarri den diskrezioa lortzeko lagungarria da biko taldeetan lan egitea, batez ere datuen bilketa fitxa-orrietan egiten ari bagara. Pertsona bakarrak, papera eta boligrafoa eskuan dituela, kalean denbora luzez jendeari begira eta zerbait idatziz ibiltzeak inguruko enpresa edo jakin-mina piztu lezake. Biren artean, ordea, elkarrekin hitz eginez eta abar, errazagoa da oharkabean pasatzea.

- **Ahalik eta elkarrizketa gehien** neurtzeko saiakera egin behar da. Beste irizpide guztiak betetzen diren bitartean (diskrezioa eta abar), ahalik eta talde gehienetara hurbildu eta hauen inguruko datuak fitxetan edo telefono mugikorrean jaso behar dira. Hau da emaitza ahalik eta fidagarrienak lortzeko bidea. Onartu behar da, hala ere, jende asko dabilen ibilbide/gunean ezingo direla jaso ematen diren elkarrizketa guztiak.
- **Kalean dagoen edo dabilen jendearen** elkarrizketei buruzko datuak soilik bildu behar

dira. Neurketatik kanpo geratzen dira salto-kiak edo ostalaritzako lokalak, baita etxe-atariak ere.

- Sarritan, kalean dagoen jendea ez da erregularki banatuta egoten neurketarako finkatutako espazioan. Kasu horietan, neurraldian zehar behin edo bitan **ibilbide osotik pasatzea** komeni da, baina neurtzaileek ibilbidearen zonalde bakoitzean igarotzen duten denbora ere ez da erregularra izan behar. **Jende gehiago dabilen inguruetan denbora gehiago** pasatzea litzateke egokiena, elkarriketa gehiago neurtu ahal izateko. Neurketa-eremuaren barrutik atera ezean, ez da noranzko berean leku berdinetatik buelta berdina eman behar; kontrakoa komeni izaten da. Diskrezioa mantendu eta kalean dabilen jendearen aurrean ez nabarmentzearen, kale batetik behin baino gehiagotan pasatzean espaloiz aldatzea edo leku batean denbora tarte batean gelditzea lagungarri izan liteke. Kaleko banku batean esertzea ere egokia izan liteke, neurketa ondo egitea eta elkarriketa asko jasotzea galarazten ez duen bitartean.
- Kalean dabilen pertsonen **neurtzaileekin hitz egiten dutenean, elkarriketa horiek ez dira fitxetan jaso behar**. Behaketa egiten ari direnek neurtutako elkarriketetan inolako eraginik ez edukitzea da helburua. Horren aurrean guztiz garbi jokatzeko segurtasun-neurri bat izango litzateke hau.

- Gogoan izan behar dira elkarrizketaren mugak. **Kide aldaketak eta hizkuntza aldaketak** dira behaketa bidezko erabileraren neurketetan elkarrizketen hasiera eta amaiera banatzen duten gertakariak. Talde bera (kide berdinez osatua) hizkuntza berean behin baino gehiagotan behatzen bada, elkarrizketa bakartzat hartu eta hala jasoko da fitxetan. Talde bera beste hizkuntza bat erabiltzen behatzen bada, bigarren elkarrizketa bat bezala jasoko da. Eta hizkuntza berean aritu arren, lehen behatutako taldean aldaketaren bat izan bada (kideren bat falta edo kideren bat gehitu bazaio), beste elkarrizketa bat balitz bezala erregistratuko da.
- **Zalantzako kasuak ez dira jaso behar.** Neurtzaileak zalantzak izan ditzake entzun duenaren aurrean, hitzuna zein hizkuntzatan ari den garbi ez dakielako. Hainbat arrazoi-rengatik gerta daiteke hori, esate baterako, ondo aditzeko arazoak izan dituelako edo esaldi berean bi hizkuntza modu oso nahasian erabili direlako. Kasu horietan, elkarrizketa horiek ez jasotzea gomendatzen da, irizpide orokorra ahalik eta datu gehien biltzeko saiakera egitea bada ere.

Datu-bilketarako azalpen garrantzitsuenak idatziz ematen zaizkie neurtzaileei fitxa-orriarekin batera (ikus 8, 9, 10 eta 11 irudiak). Telefono mugikorrean audio labur bat ere prestatu da azalpen horiekin.

8. irudia. Datu-bilketarako fitxa betetzeko ohar orokorrak (I)

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatu da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzaten. **Ez galde-tu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenan. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

Ibilbidea

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatzeko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.



HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera/frantsesa (Ipar EH)" eta "bestarik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "bestarik" zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun ulean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 1. Euskaraz laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabea, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 3. "Haurrak hitz egiten" zutabea "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egiten ari dira haien artean (Ipar Euskal Herrian frantsesez), 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 1. Gaztelera laukian "X" markatu.
 2. Haurren zutabea emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabea gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabea emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" seinalatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarrizketa**):
 1. Gaztelera laukian "X" markatu.
 2. Gazteen zutabea emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" markatu.

10. irudia. Datu-bilketarako fitxa betetzeko adibidea

**HIZKUNTZA
ERABILERAREN
KALE NEURKETA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA<
T: 943 592 556
klusterra@soziolinguintika.org

HERRIA: Bilbo
IBILBIDEA: Abando 3
EGUNA: Urriak 08 ORDUA: 18:00-20:00
NEURTZAILEAK: Ane Larrañaga
Xabier Artola

2. KALE-ERABILERAREN NEURKETA EGITEKO GIDA

	EUSKARA	GAZTELERA FRANTISESA (par EH)	BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)		Gazteak (15-24 urte)		Helduak (24-64 urte)		Adinekoak (65-...urte)		Haurrak hitz egiten	
				BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
01	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	/	/							<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	/		/	/	/				<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			2	3					<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
04	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>							2		<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>							2		<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>					/	/			<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
07	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	2				/				<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			/		/				<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						/	/		<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					2				<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
11	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			4						<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
12	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		/			/				<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						3			<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
14	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		2					/		<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					2	/			<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	/	/							<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			2	/					<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
18	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	/				/	/			<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
19	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		3			/				<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			/	/					<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Oharrak:

- Azalpena merezi duen puntua da hau: lau lagun elkarrekin doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan **guk fitxa-orriari lau lagun entzun ditugula jarriko dugu.**
- Neurketak irauten duen denboran **ahalik eta elkarrizketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitxa-orri gehien beteko ditugu.
- **Neurraldia hastean** fitxa-orri berri bat hasiko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak beteko ditugu neurraldiari dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- Ibilbidean zehar pertsona bera **–neurraldi eta elkarrizketa berean–** ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berarekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak aldatu ez arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- **Elkarrizketa elebidunetan** (batek euskaraz hitz egin eta besteak gaztekeraz erantzuten dutenean, edo alderantziz) bi aldiz jasoko dugu elkarrizketa, bata euskaraz eta bestea gaztekeraz. Ondoren bi elkarrizketak lotuko ditugu gezi batez. Ikus aurreko fitxa ereduari 04 eta 05 elkarrizketak (Adibidea: bi agure hitz egiten ari dira, bata euskaraz ari da eta besteak gaztekeraz erantzuten dio).
- **Neurtzaileekin** hitz egiten dutenei ez zaie neurtuko.
- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- **Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer:** ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari; gurea behaketa bidezko neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Fitxa-orriaren atzealdean **oharrak** idazteko tarte dago, neurketan zehar gerta daitezkeen ezustekoak, neurtzaileen zalantzak edota bestelako informazio interesgarria jasotzeko.
- **Azken oharra:** Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri**. Ikerketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.



2.3.

Datuen tratamendua

Landa-lanean jasotako datuen gainean tratamendu estatistikoa egin behar da, herri bateko kaleetan bizi den hizkuntza-errealitatea deskribatzera eta interpretatzera heldu ahal izateko.

Garrantzitsua da datuen bilketa eta tratamendua ondo bereiztea. Hemen aurkezten dugun tratamendua oinarrizkoa da, hizkuntza-erabilerari buruzko funtsezko galderari erantzuteko xedea duena. Haatik, beti da posible jasotako datuetan oinarrituta tratamendu aurreratuagoak egitea. Azken batean, eskura ditu datuak bestelako azterketa estatistikoak egin nahi dituenak.

Kale-erabileraren neurketan planteatzen diren galdegaiei erantzuteko aski da oinarrizko kalkulu eta konbinazioak lantzearekin. Jasotako informazioaren gainean, kalkulu sinpleak eginez eman daiteke jakitera zein proportziotan (%) egiten den hizkuntza batean edo bestean. Gainera, diseinuan zehaztutako aldagaien arabera ere aurkezten ahal dira emaitzak. Adibidez:

Herriko kaleetan hizkuntza bakoitzean...

- ...guztira behatutako hiztunen proportzioa.
- ...behatutako haurren proportzioa
- ...behatutako gazteen proportzioa
- ...behatutako helduen proportzioa
- ...behatutako adinekoen proportzioa
- ...behatutako gizonen proportzioa
- ...behatutako emakumeen proportzioa

Hizkuntza bakoitzean behatutako hiztunen proportzioa...

- ...ibilbide bakoitzean.
- ...neurraldi bakoitzean.

...haurren arteko elkarrizketetan.
...haurrik gabeko elkarrizketetan.
...haurrak eta beste adin-taldeetakoak naha-
sita dauden elkarrizketetan.

Eredu gisa, jarraian azalduko da neurketaren emaitzak kalkulatzeko modua zenbait aldagaien arabera.

- X hizkuntzaren erabilera (proportzioa) herrian:

*X hizkuntzako elkarrizketatan behatutako
pertsoneko kopurua*

*Guztira herrian behatutako pertsona
kopurua*

- Gazteak adin-taldearen X hizkuntzaren erabilera (proportzioa) herrian:

*X hizkuntzako elkarrizketatan behatutako
gazteko kopurua*

Guztira herrian behatutako gazteko kopurua

- Emakumezkoen X hizkuntzaren erabilera (proportzioa) herrian:

*X hizkuntzako elkarrizketatan behatutako
emakumeen kopurua*

*Guztira herrian behatutako emakumeen
kopurua*

Datuen tratamendua egiteko, datu-base edo kalkulu-orriren bat erabiltzea komeni da. Ikerlariak erabaki beharko du zein baliabide informatiko egokitzen den hobekien bere beharretara.

Lehenago aipatu bezala, bildutako datuetatik emaitzak ateratzeko egin beharreko kalkuluak nahiko sinpleak badira ere, badaude ohiko zalantza batzuk urrats honetan.



Biztanleriaren azpi-taldeen desoreka jasotako laginean

Neurketako laginaren kalkulurako, herriko biztanleria datuak erabiltzen dira erreferentzia gisa. Biztanleriaren azpi-taldee buruzko datuak ere eskura izan ditzakegu datu-bilketan hasi aurretik. Azpi-talde deitzen diegu biztanleria osoa aldagaien arabera banatzen dugunean sortzen diren taldeei (emakumezkoak, gizonzkoak, gazteak, adinekoak...). Diseinuan emandako azalpenen arabera landa-lana eginez gero, neurri batean fida-garriak diren datuak lortzeko moduko elkarrizketa kopurua (lagina) jasoko genuke. Zalantza sortzen da biztanleriaren azpi-taldeen biztanleria osoan eta laginean duten proportzioa desberdina denean. Azpi-talde bat laginean jatorrizko biztanleriarekiko gain-ordezkatuta edo azpi-ordezkatuta baldin badago, zer egin? Nola kontuan hartu talde horren balioa datu orokorrak kalkulatzeko? Ponderazioen beharrik ba al da?

Erantzuna ezezkoa da. Diseinu egokiaren gakoa, arestian esan bezala, ordutegi eta ibilbideen bidez potentzialki herriko kaleetan ibil daitekeen edonor neurtu ahal izatea da. Irizpide nagusi horren arabera diseinatuz gero, neurketan jasotakoak herri horretako kaleetako errealitatea islatuko du, inolako ponderazioen beharrik gabe. Esate baterako, neurketan berez herriko populazio-datueta dagokiona baino proportzio baxuagoan jasotzen badira azpi-talde bati buruzko datuak, azpi-talde horretako pertsonen kaleari ibiltzeko besteek baino joera txikiagoa duten seinale izan daiteke.

Adibide batez azalduko dugu azpi-taldeen desorekaren kontu hau.

Demagun biztanleriaren datuetan ikusi dugula herri bateko biztanleak honela banatzen direla adin-taldeka: haurrak (% 17), gazteak (% 28), helduak (% 33) eta adinekoak (% 22).

Bildu diren datuetan, berriz, honela banatu dira hiztunak adin-taldeka: haurrak (% 22), gazteak (% 18), helduak (% 35) eta adinekoak (% 25).

Ikus daitekeenez, bildutako datuetan gazteen taldea biztanleria-datuetan baino proportzio txikiagoan dago ordezkatua. Horren aurrean, jakin behar-ko litzateke ea diseinuan gazte asko ibiltzen den zonalde edo ordutegiren bat neurketatik kanpo utzi den.

Sortzen den zalantza da: herriko erabilera-datua kalkulatzeko, adin-talde bakoitzaren erabilera-proportzioa biztanlerian talde horrek duen proportzioaren arabera (17-28-33-22) ponderatu behar al dugu?

Ez. Kaleko erabilera erreala neurtzea da hasieratik finkatu den helburua. Gerta daiteke adin-taldeen artean aldea egotea kale-presentziari dagokionez, adibidez, haurrak kalean gehiago ibiltzea adinakoak baino. Hori horrela izanda, ponderaziora joko bagenu, kalean dauden adinekoen elkarrizketek pisu handiagoa lukete gure neurketan haurrenek baino. Eta irizpide hori ez dator bat kaleko erabilera erreala neurtzarekin⁴.

4 Albo-ondorio gisa jakin dezakegu zein den kale-presentzia adin-taldeka.

2.4.

Emaitzen irakurketa

Behin datuak jaso eta horien hasierako tratamendua egin ostean, ikerlariaren esku geratzen da prozesamendu landuagoa egitea eta, ahal den neurrian, ondorioak ateratzea. Analisi- eta hausnarketa-prozesu honi *emaitzen irakurketa* deitu ohi zaio.

Urrats honetan oso garrantzitsua da zenbakien nahas-mahasean ez erortzea. Hain dira ugariak eta askotarikoak jasotako datuak, non beharrezkoa den horiek denak oso modu ordenatuan eta egituratuan aztertzea. Bestela, arriskua dago ondorio lausoetara, edo, are eta okerrago dena, ondorio okerretara ailegatzeko.

Emaitzen irakurketa ezin daiteke egin irizpide metodologikoak oso presente eduki gabe. Diseinuan erabakitakoek zer esan handia dute emaitzen analisian.

Hizkuntzaren erabilera neurtzeko darabilgun metodologian, eta emaitzen irakurketari begira, nabarmentzekoak dira ondoko puntu hauek.

Norbanakoaren hizkuntza baino taldeko elkarrizketa-hizkuntza

Hizkuntzaren ahozko erabilera gertaera kolektiboa da, izatez. Alegia, hizkuntzaren ahozko erabilera ez da norbanakoari dagokion zerbait, taldeari dagokiona baizik. Ezagutza, ordea, norbanakoari dagokio.

Erabileraren emaitza orokorra ematerakoan kontuan hartu behar dugu neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa-hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat beha-

tzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat ariko balitz hizketan, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela⁵.

Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen, eta, ondorioz, metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen ditugun hiztun-taldeek hizkuntza-jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da –inkontzienteki bada ere– zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da, eta aurretik ezin izan diren hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla, baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta, hain zuzen, aldagaiztasun horrek hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Norbanakoen arabera portzentajea

Hizkuntza-erabileraren neurketarekin emaitza nagusia portzentaje bat izango da. Bi modutara eman dezakegu erabilera-datua: elkarrizketa-hizkuntzaren arabera (X elkarrizketatik Y izan dira euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo katalanez), edo norbanakoen arabera (behatu ditugun X pertsonatik Y ari ziren euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo katalanez).

5 Bestelako egoera da elkarrizketa elebidunetan gertatzen dena, alegia, hiztun batek hizkuntza batean hitz egin eta beste hiztunak beste hizkuntza batean erantzuten duenean, edota hiru hiztunen arteko elkarrizketan bik hizkuntza bat erabiltzen dutenean eta hirugarrenak beste hizkuntza bat.

Datua norbanakoen arabera emateak badu abantaila garrantzitsu bat, hiztunaren ezaugarriak azter daitezkeela, erabilera-indizeak aldagai horien arabera kalkulatu. Esate baterako, gune batean berariaz haurren erabilera jaso nahi badugu, ezinbestekoa dugu hiztuna haurra den ala ez jakitea.

Soziolinguistika Klusterraren irizpide eta joera nagusia da norbanakoetan oinarrituta kalkulatzeko erabilaren portzentajeak. Bi arrazoi nagusitzen dira horretarako. Batetik, hastapeneko neurketetako emaitzak horrela kalkulatu ziren, eta garrantzi handia du datuen segida mantentzeak erabileraren bilakaera aztertu ahal izateko. Bestetik, lehen esan bezala, hiztunen ezaugarrien (adina, sexua...) erabilera-datuak eskuratzeko ezinbestekoa da emaitzak norbanakoen arabera izatea.

Dena den, 2011n egindako 97 udalerritako neurketen erabilera-datuak bi modutara kalkulatu ziren, elkarrizketen arabera eta norbanakoaren arabera. Kasu gehienetan bi datuak oso antzekoak dira, hamartar batzuen aldea besterik ez dago. Alderik handiena 3,7 puntukoa da. Udalerririk gehienetan, 97 udalerritatik 64tan, aldea puntu bat baino txikiagoa da. 29 udalerritan aldea 2 edo 3 puntukoa da. Eta gainontzeko 4 udalerritan, 3 eta 3,7 puntu artekoa. Berariazko ikerketa sakonagoa behar da bi kalkuluek antzeko emaitza ematen digutela ondorioztatzeko, baina badirudi erabilaren portzentajea norbanakoaren edo elkarrizketaren arabera kalkulatzeko alde oso txikia eragiten duela. Gainera, kontuan hartu behar da datua norbanakoaren arabera kalkulatu bada, hiztunaren ezaugarrien arabera erabilera-datuak lor ditzakegula.



Erabilera maila vs. ezagutza maila

Pertsona batek hizkuntza bat ala bestea erabiltzea faktore askoren emaitza da. Faktore horien artean, ezagutza mailak garrantzi handia du, bistan denez. Hori horrela, sarri hizkuntza baten ezagutza proportzioa eta erabilera proportzioa alderatze hutsetik atera ohi diren ondorioak ez dira zuzenak. 3.3 atalean, Euskal Herriko Kale Neurketa nagusitik ateratako ondorioak

aurkezten direnean, ezagutzaren eta erabileraren arteko erlazioa adibide batekin ulertzeko moduan azalduko dugu.

Herriko erabilera vs. herritarren erabilera


Udalerrri bateko neurketa egin ondoren, kontuan hartu behar dugu behatzen ditugun hiztun guztiek ez dutela zertan bertakoak izan. Momentu eta gune jakin batean hizketan ari dena behatzen dugu. Beraz, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketan jasotakoa bertako biztanleen erabilera denik. Zuzenagoa da esatea bertako kaleetan jaso dugun erabilera dela aztertzen duguna.

Unibertso aldakorra

Kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagai –kale-erabilera, alegia– neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

Hizkuntza-erabilera
behaketa bidez neurtzeko
GIDA METODOLOGIKOA





3.

HIZKUNTZA-ERABILERAREN BEHAKETA EUSKAL HERRIAN


Metodologiaren oinarriak eta gida aurkezturik, erabilpen-kasu zehatz bati helduko diogu. Hain zuzen ere, puntu honetan, 2011n egindako Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren neurketa ekarriko dugu hizpidera, eta errepasso orokor bat egingo diogu ikerketa horri.

Beste ezer baino lehen, Euskal Herriari buruzko azalpen laburra egingo dugu, ikerketaren esparrua hobeto kokatzeko xedez.

3.1.

Euskal Herria, euskararen herria

Euskal Herriari buruz *wikipedia* entziklopedia libre eta elkarlanekoan agertzen dena ekarri dugu hona⁶:



Euskal Herria Europako herrialde bat da. Historikoki euskaldunen eta euskararen lurraldea da, Pirinio mendien mendebaldean kokatua, Frantzia eta Espainiaren arteko muga egiten duen mendi-

⁶ http://en.wikipedia.org/wiki/Euskal_Herria



lerroan, eta Bizkaiko golkorantz zabaltzen dena. Zazpi herrialde edo probintzia hauek barne hartzen ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Guztira, Euskal Herriak 20.950,3 km² ditu, eta 3.005.670 bizilagun zituen 2006an.

Euskal Herrian euskara, gaztelania, frantsesa eta gaskoiera mintzatzen dira.

Gaztelania eta frantsesa nagusi dira, lehena Hegoaldean eta bigarrena Iparraldean. Hala ere, gutxi gorabehera biztanleen herenak egiten du euskaraz. Gaskoia, aldiz, Baiona inguruan (BAB) eta Nafarroa Behereko iparraldeko ingurune batzuetan hitz egiten da, baina oso ahul dago.

Euskararen ofizialtasun maila ezberdina da hiru lurraldeen arabera: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), koofiziala da hiru probintzietan; Nafarroan, koofiziala “eremu euskaldun” delakoan barrik, erdi ofiziala “eremu mistoan” eta ez ofiziala “eremu erdaldunean”; Ipar Euskal Herrian, ez dauka ofizialtasun estatusik.(...)

Euskara

*Euskara (beharbada aitzineuskaraz: *enau(t)si (esan) + -(k)ara (era)) Euskal Herriko hizkuntza da. Hizkuntza ergatiboa eta isolatua da. Euskaraz mintzo direnei euskaldun deritze. Gaur egun, Euskal Herrian bertan ere gutxitua dago, lurralde honetan berriagoak diren gaztelania eta frantsesa nagusitu baitira.*

Euskararen sustrairik zaharrenak (Erromatar Inperioaren aurretikoak) Akitania osoan eta Bizkaiko golkotik Andorrraraino bitarteko Pirinioen bi aldeetan agertu dira, eta Erdi Aroan behintzat Errioxan eta Burgosko ipar-ekialdean ere hitz egin zela dokumentatuta dago. Gutxitze prozesu gogorra jasan du, etenik gabe lurraldeak galduz. Nafarroa Garaian, bereziki, prozesu hori oso nabarmena izan da azken mendeotan. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, hainbat intelektual eta politikariren eraginez (Arturo Kampion, Sabin Arana...) nolabait biziberritu zen, aber-tzaletasunari estuki loturik. Frankismoan jasarpen latza pairatu ondoren, XX. mendearen erdialdetik aurrera hasi da indartzen, idatzizko estandarizazioak lagunduta.

1980ko hamarkadatik aurrera, erakunde onarpena lortu du, lurralde zatiketa handiekin bada ere. Gernikako Estatutuak euskara Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza izendatu eta gaztelaniarekin batera ofizial egin zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (Trebiñun eta Villaverde Turtziozen ez). Nafarroa Garaian, Euskararen Legearen eraginez, herrialdeko ipar-mendebaldean (eremu euskalduna) soilik da koofiziala. Iruñean eta erdialdeko beste hiri garrantzitsuetan (eremu mistoa), onarpen maila txikiagoa eta traba handiagoak ditu. Nafarroa hegoaldean (eremu ez-euskalduna), berriz, euskara ez dago onartuta. Ipar Euskal Herrian, euskarak ez du aginpidea duten erakunde publikoen onarpenik: hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da.

12. irudia. Euskal Herriaren kokapena



3.2.

Ikerketaren kokapena eta ibilbidea

2011n egin zen azken datu-bilketa. 1989an egindako lehenengo hartatik seigarren edizioa dugu honako hau. Laburpen gisa, honako ezaugarri hauek nabarmenduko ditugu:

Helburu orokorra:

Euskal Herriko, eta bertako herrialdeetako, hizkuntza-erabileren datuak eskuratzea. Kalean euskararen eta beste hizkuntzen presentzia zenbatekoa den kuantifikatzea.

Landa-lana:

Euskal Herri osoan 97 udalerrri neurtu dira. Lagina osatzen duten udalerrri horiek aukeratzeko hainbat irizpide izan dira kontuan: esate baterako, aurreko ediziotan neurtutako udalerrriak izatea, eta herrialde bakoitzean zonalde soziolinguistiko guztiak ordeztuta egotea.

Landa-lana udazkenean egin zen, irailean eta urrian. Udalerrien erdiguneetan sei orduko neurketak egin ziren, hiru neurraldietan.

4. taula. Euskal Herriko Hizkuntza-Erabileraren Kale-Neurketa, fitxa-teknikoa

FITXA TEKNIKOA

UNIBERTSOA: Euskal Herriko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 154.277 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 363.616 herritarrek osatu dute lagina.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): $\pm 0,4$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta $p=13,3$ izanik (behatutako elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoak).

Ikerketaren ondorio nagusiak

Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren behaketak utzitako emaitza guztietatik zazpi ondorio nabarmenduko ditugu.


1. ondorioa: 2011n egin zen azken kale-neurketan euskararen erabilera % 13,3koa izan zen.

Duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta.

Euskal Herriko Kale-Neurketa egiten hasi zenetik, hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin du gora euskararen erabilera Euskal Herriko batez bestekoan. Hasierako edizio hartan, 1989an, % 10,8ko erabilera jaso zen.

Azken hamar urteko epea hartuz gero, erabilera trabatu egin dela edo zertxobait behera egin duela esan behar da. 2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen: % 13,3.

13. irudia. Euskararen kale-erabilera Euskal Herrian. Euskaraz %



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1989-2011

2. ondorioa: Erabilera-datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira.

Euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira. Oro har, euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara, bestela, eta probabilitate estatistikoen arabera, are gutxiago erabiliko genuke euskara. Bigarren baieztapen honen oinarrian, J.L Alvarez Enparantzak –Txillardegik- garatutako erabilera isotropikoaren teoria dago (Alvarez, 2001).

Txillardegik gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harreran guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatu da:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

non:

P_B = euskararen erabilera maila

m_B = euskararekiko leialtasuna

e_x = elebidunen proportzioa

w_2 = bikoteen pisua

w_3 = hirukoteen pisua


w_4 = laukoteen pisua

Aplika diezaiogun formula hori Euskal Herriari⁷.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,269^2 + 0,22 \cdot 0,269^3 + 0,18 \cdot 0,269^4) = 0,049 = \% 4,9$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Euskal Herrian % 4,9koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Euskal Herriko biztanleen arteko zoziriko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, % 4,9koa da espero daitekeen euskararen erabilera. Dena den, Euskal Herrian elebidunen proportzioari (hizkuntza-gaitasunari) dagokionez, errealitate biziki ezberdinak biltzen dira. Egokiagoa da eremua mugatu eta lurraldeen arabera azterketak egitea. Lurralde bakoitzean kalean behatutako erabilera errearen eta espero daitekeenaren arteko alderaketak egin ditugu 14. irudian.

14. irudia. Hizkuntza-gaitasuna, erabilera erreala eta espero daitekeen erabilera. Hego Euskal Herriko lurraldeak. Euskaraz %



7 Euskal Herriko elebidunen proportzioa (e.) Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen Inkesta Soziolinguistikotik atera dugu (ISL, 2011). Kontuan izan behar dugu, dena den, 16 urtetik gorako biztanleei dagokien datua dela. Beraz, elebidunen datu orokorra % 27 hori baino altuagoa da.

Kontuan hartu behar da honako hau erreferentzia teorikoa dela, eta jakin badakigu harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin). Zer esanik ez hiri handietan, hauetan gehienekin ez dugu inoiz harremanik izango. Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela % 100ekoa, eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: bertako euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino handiagoa da. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

3. ondorioa: Hizkuntza-aniztasuna gero eta presenteago dago gure kaleetan

Bosturteko honetan euskara, gaztelania eta frantsesa⁸ ez diren hizkuntzen erabilerak modu esanguratsuan egin du gora: % 2,6tik % 3,7ra. Azterketa hau azken bi neurketetan baino ez da egin; aurretik ez ziren beste hizkuntzen erabilpenak jasotzen.

8 Gaztelania beste hizkuntzen multzoan sartu da Iparraldean, eta modu berean frantsesa Hegoaldean.


4. ondorioa: Zonalde soziolinguistikoren arabera lau zonalde bereiz daitezke⁹

Zonalde bakoitzean ondorio nagusia honakoa izan da:

1. zonaldea: Euskal Herriko biztanle gehienak zonalde erdaldunenean bizi dira, hau da, ezagutza % 25 baino txikiagoa den eremuan. Biztanleria osoaren % 70 inguru bizi da bertan, eta azken neurketan erabilera % 3 ingurukoa da. 1993an ere erabilera maila bera jaso genuen. 2006an, ordea, erabilera % 4koa izan zen.
2. zonaldea: Euskaraz dakiten biztanleen portzentajea % 25 eta % 50 bitartekoa den zonaldean erabilera % 14-15 ingurukoa da. Ia lau puntuko igoera gertatu da hamazortzi urtean.
3. zonaldea: Ezagutza % 50 eta % 75eko tartean dagoen zonaldeetan, erabilera % 40 ingurukoa da. 1993tik hona igoera nabarmena gertatu da zonalde honetan, ia zortzi puntukoa, hain zuzen.
4. zonaldea: Azkenik, biztanle gehienek (% 75 eta % 100 artean) euskaraz dakiten zonaldeetan, entzundako hiztunen % 66 inguru euskaraz ari ziren. Hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik hona.

9 Bi ohar hartu behar ditugu kontuan. Batetik, ezagutzaren araberako zonaldeen datuak 1993az geroztik ditugu; hamazortzi urteko bilakaera azter dezakegu, beraz. Bestetik, zoritxarrez, ezagutzari buruzko daturik ez dugu Ipar Euskal Herrian, eta Hego Euskal Herrira mugatu beharrean gaude.

15. irudia. Erabileraren bilakaera zonalde linguistikoaren arabera. Euskaraz %



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1989-2011


5. ondorioa: Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara

Lau adin-talde bereizi dira: haurrak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 24 urte bitartekoak), helduak (25 eta 64 urte bitartekoak), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).

Bi dira azpimarratu beharreko fenomeno nagusiak adin-taldeen azterketari gagozkiola.

Gehien hitz egiten dutenetik gutxien hitz egiten dutenera ordenatzen baditugu adin-taldeak, haurrak daude lehen tokian (% 19,2), gero gazteak (% 13,4), helduak (% 11,8) eta, azkenik, adinekoak (% 9,7). Horren arabera, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hurrenkerara hori lurralde gehienetan betetzen bada ere, Bizkaian bada aldaketa bat: Bizkaiko adinekoek gehiago egiten dute euskaraz helduek baino.

16. irudia. Euskararen erabilera adin-taldeen arabera. Euskal Herria, 2011




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2011

Lehenengo kale-neurketa egin zenean, 1989an, haurren artean jaso genuen erabilera-mailarik altuena, baina bigarrenaz adinekoen erabilera genuen, ondoren helduena, eta azkenik gazteena.

Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, oro har haurretan, gazteetan eta helduetan erabilerak gora egin du. Ez, ordea, adinekoetan.

17. irudia. Adin-taldeen araberako bilakaera. Euskal Herria, 1989-2011




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 1989-2011

6. ondorioa: Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan ezik.

Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan gertatzen da, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izan ezik.

18. irudia. *Sexua eta adin-taldean arabera erabilera. Euskal Herria, 2011*




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2011

7. ondorioa: Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran.

Haurrak eta nagusiak¹⁰ elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak. Haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki. Salbuespena Gipuzkoa dugu, euskara gehien erabiltzen den lurraldea.

19. irudia. Euskararen erabilera haurren presentziaren arabera. Lurraldeak, 2011



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011

10 Nagusitzat hartzen ditugu gazte, heldu eta adinekoak.

Hizkuntza-erabilera
behaketa bidez neurtzeko
GIDA METODOLOGIKOA





4.

HIZKUNTZA-ERABILERAREN BEHAKETAK LANTOKIETAN ETA IKASTETXEETAN

Kaleko neurketez aritu gara orain arte. Eta kalea leku irekia da, hau da, edonor topa dezakezu bertan. Atal honetan gune mugatuagoi erreparatuko diegu, izan ere, duela urte batzuetatik hona asko ugarritu baitira leku “itxietan” egiten diren erabileraren behaketak.

20. irudia. Neurketa motak, espazioaren arabera



Gurean, lantokietakoak eta ikastetxeetakoak dira ohikoenak. Lantokietan hizkuntza normalkuntzan diharduten aholkularitza-zerbitzu batzuek¹¹ urteak daramatzate enpresetan ahozko erabilera neurtzen eta ebaluatzen. Urtero egiten dituzte neurketak hizkuntza sustatzea helburu duten interbentzioek zer-nolako eragina duten jakiteko.

¹¹ Aski ezaguna da, kasu baterako, Elhuyar, AEK-Ahize, Emun eta Artez-en jarduna alor horretan.

Oro har, esan dezakegu deskribatu dugun metodologia erabilgarria dela gune itxietan ere. Hortaz, berezitasunak berezitasun, oinarri metodologikoei eutsi egiten diegu eremu itxietan ere. Berezitasun horiek direla eta, egokitzapen edo moldaketaren bat egin behar izaten da, tokian tokiko errealitatea hobeto jasotzeko. Atal honetan, berezitasun horiez ariko gara.

Hiztuna ezaguna

Eremu itxien berezitasunetako bat da hiztunaren informazio gehiago dugula. Alegia, aurrez jakin daiteke, neurtzailea bertako partaide bada, esate baterako, hiztuna nongoa den edo zein den bere ezagutza maila hizkuntza konkretu batean. Aitzitik, kaleko behaketetan hiztuna ez dugu ezagutzen, eta aztergai diren aldagaien informazioa behaketa hutsez jaso behar dugu. Hizkuntza-erabilerarekin batera jasoko dugun hiztunaren informazioa, beraz, askotarikoagoa eta fidagarriagoa izango da gune mugatuetan.

Zailtasuna: diskrezioa lortzea

Landa-lana egiterakoan gune itxi edo mugatu hauetan zailtasun nagusia diskrezioa lortzea izaten da. Izan ere, batzuetan fisikoki leku txikiak izaten dira eta egunerokoan lagun talde bera topatzen dugu. Egunerokoan ohikoa ez den jarduera bat (datu-bilketa) inor konturatu gabe aurrera eramateko, neurri batzuk hartzea ezinbestekoa dugu. Neurri horietako bat izan daiteke datu-bilketarako tresna lekura egokitzea, eta, horretarako, adibidez, administrazio-bulego batean ordenagailuan jaso ditzakegu datuak, mugitu gabe, eserita, lanean edo idazten ari garelako itxura eginez. Edota, lantegietako kafe-makina gelak gune interesgarriak izan ohi dira neurketak egiteko, bertan langileen artean giro informala nagusitzen baita eta elkarrizketak ugariagoak izaten baitira. Gune hauetan telefono mugikorraz balia gaitzke datuak biltzeko.

Landa-lanean diskrezioa lortzeko beste neurrietako bat neurtzailea bertakoa izatea da. Egunerokoan arrotza den pertsona bat datuak biltzen jartzea

ez da egokia, hitzuna konturatu egiten baita zerbait arraroa gertatzen dela. Beraz, oso garrantzitsua da neurtzailea lantegiko bertako langile bat izatea, edo ikastetxeen kasuan, neurtzailea bertako ikasle, irakasle edo ikastetxe-ko langileren bat izatea.

Neurtzailea bertakoa izateak badu beste abantaila bat, hitzunaren informazioa aurrez jakin dezakegula. Eta, jakina, metodologiaren ezinbesteko baldintza hitzunari ez galdetzea denez, horrela ahozko erabileran eragin dezaketen faktoreen azterketa ere egin dezakegu, elkarrizketa-hizkuntzarekin batera bestelako informazioa ere jasota (hizkuntza-gaitasuna edo ikastetxeko hizkuntza-eredua, kasu baterako).

Behaketa-gune ezberdinak

Leku itxietan jasotzen diren datuek eremu horretako gune guztien adierazle izatea oso garrantzitsua da. Ahozko jardunari dagokionez, esanguratsuenak diren guneak aukeratzen dira. Hau da, guneak aukeratzekoan ahozko komunikazioa gertatzen den gune naturalak zein diren izan behar dugu kontuan. Kasu batzuetan, gune batzuk formalagoak izango dira eta beste batzuk informalagoak.

Hala bada, lantegi edo ikastetxe bakoitzaren neurketak behaketa-gune ezberdinak izan ditzake. Eman ditzagun adibide batzuk.

Lantegietan berariaz neurtzeko gune interesgarriak izan daitezke, esate baterako, bulegoak, kafe-makina gelak, jangelak edo sarrera-irteerak.

Ikastetxeetan egokiak dira jolastokiak, korridoreak, jangelak edo sarrera-irteerak.

Neurketa-gune bakoitzak bere erabilera maila izango du, eta gune bakoitzean topatzen ditugun hitzunak eremu horretan dauden hitzun guztien adierazle badira, gune guztien baturak adieraziko du eremu horretako erabilera maila.



Aldagaiak eta behaketarako fitxa-orria

Eremu itxietan erabiltzen den fitxa-orriaren eredua, oinarrian, kaleko behaketetan erabilitakoa da. Egokitzapen txiki batzuk egiten dira eremu zehatzetara doitzeko.

Adibidez, lantokietako fitxa-orria hartuta, bertan, elkarrizketa-hizkuntzaz gain, aztertzen diren menpeko aldagaiak bi dira: hiztunaren adina eta enpresan duen kargua.

21. irudia. Lantokietan hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko datu-bilketarako fitxa eredu

HIZKUNTZA ERABILERAREN NEURKETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
klusterra@soziolingvistika.org

LANTOKIA: _____
GUNEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEA: _____

	A Hizkuntza	B Hizkuntza	BESTERIK	Zuzendaria	Kudeatzailea	Administratzailea	Teknikaria
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				

40 urtetik behera | 40 urtetik gora

OHARRAK: _____

Aurreko fitxan hitzunaren adina eta enpresan duen kargua jaso dugu. Adinari 40 urteko muga jarri diogu, hortik beherako hitzunak eta gorakoak bereiziz. Enpresan duen karguari dagokionez, zuzendariaren, kudeatzailearen, administrariaren edo teknikariaren lanpostuak bereizi ditugu. Jakina, adina zein enpresako kargua beste modu batera sailka edo izenda daitezke, eta datu-bilketarako fitxa-orria aztergai dugun enpresaren errealitatera edota ikertzailearen nahietara egokitu daiteke.

Bestalde, aldagai horien ordez edota horiez gain, beste batzuk (ere) beha daitezke, esate baterako, hizkuntza-gaitasuna, sexua edo bizilekua. Berriro diogu, aztertu nahi dugun aldagaia aukeratzekoan kontuan izan behar dugu neurtzaileak hitzunari ezer galdetu gabe jaso behar dituela datuak, beraz, neurtzaileak gai izan behar du aldagai horiei buruzkoak jakiteko hitzunari buruz; alegia, neurtzaileak jakin beharko du lankidea nongoa den, edota hizkuntza bat edo bestea hitz egiteko gai den.

Behatu beharreko elkarrizketa kopurua (lagina)

Ikusi dugu 2.1.4 atalean zein eredu matematikotan oinarritzen garen laginaren tamaina kalkulatzeko, helburutzat hartuta neurketan fidagarritasun eta errore maila egokiak erdieste.

Eredu horrek aukera ematen du laginaren tamaina kalkulatzeko bai eremu irekietan bai eremu itxietan.

Hain zuzen ere, 5. taulan erakusten dugu zenbat elkarrizketa jaso beharko lirartekeen lantegi batean % 95eko konfiantza eta ± 5 eko errore mailatarako, langile kopuruaren eta euskaldun proportzioaren arabera.

5. taula. Neurtu beharreko elkarrizketa kopurua lantegi batean

LANGILE KOPURUA	EUSKALDUN PROPORZIOA	KONFIANTZA MAILA	ERRORE MAILA	ELKARRIZKETA KOPURUA
50	90	95	±5	223
50	50	95	±5	349
50	25	95	±5	267
100	90	95	±5	233
100	50	95	±5	375
100	25	95	±5	283
250	90	95	±5	236
250	50	95	±5	383
250	25	95	±5	288

Bestetik, egoera guztiak ondo jasoko diren bermea izateko, komeni izaten da gune bakoitzean neurraldi bat baino gehiago egitea, ahal dela egun batzuk hartuz horretarako.

ERREFERENTZIAK



- Altuna, Olatz; Berrio-Otxoa, Kontxesi; Jausoro, Nekane; Martinez, Zesar. 2008 (argitaratu gabe). "Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak". In *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*. 2008-2009 ikasturtea. Asmoz fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, Isasi, X. 1994. Soziolinguistika matematikoa. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, 2001. Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen.
- Bourhis, Richard Y.; Sachdev, Itesh. 1984. "Vitality Perceptions and Language Attitudes: Some Canadian Data". *Journal of Language and Social Psychology*, 3. lib., 2. zk.: 97-126. or.
- Eusko Jaurlaritza 2008. *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz.
- Gal, Susan; A. Woolard, Kathryn. 2001. Constructing Languages and Publics: Authority and Representation. In *Languages and Publics: The Making of Authority*. Manchester (Erresuma Batua) eta Northampton (Massachusetts): St. Jerome Publishing. 1. -12. or.
- H. Hill, Jane. 2008. *The Everyday Language of White Racism*. Malden (Massachusetts): Wiley-Blackwell.

- Juaristi, Patxi. 2003. *Gizarte ikerketarako teknikak*. Bilbo: UPV-EHU
- Martínez de Luna, Iñaki; Isasi, Xabier; Altuna, Olatz. 2006. Use of the Basque Language, Key to Language Normalization. In *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Azurmendi, M. J.; Martínez de Luna, Iñaki. Andoain: Soziolinguistika Klusterra. 67.-88. or.
- Martínez de Luna, Iñaki; Isasi, Xabier; Altuna, Olatz. 2006. Use of the Basque Language, Key to Language Normalization. In *The Case of Basque: Past, Present and Future*. Azurmendi, M. J.; Martínez de Luna,
- Rodrigue, Landry; Bourhis, Richard Y. 1997. "Linguistic Landscape and Ethnolinguistic Vitality: An Empirical Study". *Journal of Language and Social Psychology*, 16. lib., 1. zk.: 23.-49. or.
- SIADeco. 1979. *Conflicto Lingüístico en Euskadi*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Soziolinguistika Klusterra 1991. *Euskararen Erabilpenaren neurketa* BAT Soziolinguistika aldizkaria, 3-4. Andoain.
- Soziolinguistika Klusterra 2002. *Euskararen Kale Erabilpena Euskal Herrian* BAT Soziolinguistika aldizkaria, 28. Andoain.
- Soziolinguistika Klusterra 2007. Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. Emaitzak, azterketak, gogoetak. BAT Soziolinguistika aldizkaria, 64. Andoain.
- Urla, Jacqueline. 1989. Reinventing Basque Society: Cultural Difference and the Quest for Modernity, 1918-1936. In *Essays in Basque Social Anthropology and History*. Douglass, William A. Basque Studies Program Occasional Papers Series, 4. zk. Reno: University of Nevada Press. 149.-176. or.
- Urla, Jacqueline. 1993. "Cultural Politics in an Age of Statistics: Numbers, Nations and the Making of Basque Identity". *American Ethnologist*, 20. lib., 4. zk.: 818.-843. or.
- Urla, Jacqueline. 2012. *Reclaiming Basque: Language, Nation and Cultural Activism*. Reno (Nevada): University of Nevada Press.
- Woolard, Kathryn Ann. 1989. *Doubletalk: Bilingualism and the Politics of Ethnicity in Catalonia*. Stanford: Stanford University Press.

- Woolard, Kathryn Ann. 2008. "Language and Identity Choice in Catalonia: the Interplay of Contrasting Ideologies of Linguistic Authority". In *Lengua, nación e identidad. La regulación del plurilingüismo en España y América Latina*, 303.-324. or. Madrid-Frankfurt am Main: Iberoamericana-Vervuert Verlag.
- Yurramendi, Y. eta Altuna, O. (2009) Zuzeneko behaketaz hizkuntza -erabilera neurtzeko metodologiaren eredu matematikoa. Laginketa eta estimazioa. *Soziolinguistika Klusterra*. <http://www.soziolinguistika.org/files/TXOSTENA.pdf>
- Zarraga, Arkaitz; Coyos, Jean-Baptiste; Hernandez, Jone M.; Joly, Lionel; Larrea, Imanol; Martinez, Loren V.; Uranga, Belen; Bilbao, Paul. 2010. *Soziolinguistika Eskuliburua*. Eusko Jaurlaritz. *Soziolinguistika Klusterra*

